

**ANNE IGARTIBURU**

*"Nahi bai, baina jendea konturatu behar da nik ezin ditudala hemengo arazoak konpondu"* /9

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko ekainaren 1a • II. urtea • 24. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**Goienka2a**
Debagoiena aurreratua dago web orrialdeen esparruan

**HERRIZ HERRI**
Antzuolako Udalak AHTren proiektuaren aurka egingo du /4

**KIROLAK**
III. Errugbi eta Garagardo Festa asteburuan Arrasaten /11

**KULTURA**
Musika, zinema eta jokoak Oñatin, Ziritour-en barruan /14

GARBITASUNEKO LANGILEEN GREBA

## Garbitasuna: arazo gero eta larriagoak

Sei astebete badira Gipuzkoako garbitasuneko langileek erabakeko grebari ekin ziotenetik eta dagoeneko nabaritzen hasi da Debagoieneko zenbait lekutan lanuztearen eragina.

Musakolako eta Iturripeko kiroldegietan igarri da gehien. Sasoi batez itxita egon ostean, ireki egin dituzte hainbat zerbitzu, nahiz eta komunak, dutxak eta aldagelak ezin diren erabili. Aretxabaletan ere, Kurtzebarri eskolak gutxieneko zerbitzuak betetzea eskatu dio udalari. Oñatin, Bergaran eta Eskoriatzan, berriz, ez da arazo nabarmenik igartzen.

Egoera gaiztotu liteke, sindikatuek erabaki dute-eta bulego eta lantokietan gutxieneko zerbitzurik ez egitea. /2-3

## MCCk 16.000 lanpostu eta 44 enpresa sortuko ditu 2004rako

MCCk 2004an amaituko den plan estrategiko anbiziotsuari ekin dio. Aurrez ikusitakoa betetzen badu, bi bilioiko salmentak egingo ditu 2004an.

Plan horren arabera, MCCk 550.000 milioi pezetako inbertsioak egin eta, ondorioz, 44 enpresa eta 16.000 lanpostu berri sortuko ditu 2004rako. Orduan 70.000 langile izango lituzke taldeak. Horrek bihurtuko luke Espainiako Estatuko bigarren enpresa-talde, enpleguari dagokionez.

Datu horiek guztiak eguaztenean eman zituen aditzera MCCk, Antonio Cancelok taldeko lehendakari bezala egingo duen azken emaitzen aurkezpenean.

DEBAGOIENA

### Deba arroko tranbia, aurrera

Eusko Jaurlaritzak Fulcrum enpresari esleitu dio Deba arroan tranbiarako lehen ikerketalana egiteko ardura.

Datozen lau hilabeteotan tranbiaren ibilbide egokiena azterturko du. Horretarako, ia hamar milioiko aurrekontua izango du.

Bestalde, Leber enpresak ustez tranbia erabiliko dutenen datuak aterako ditu.

BERGARA

### Etxaniz ekainaren 17an irten liteke

Jose Mari Etxaniz preso bergararrak ekainaren 17an utz lezake Salamancako espetxea, etxera etortzeko. Espetxeko agintariek horixe proposatu omen diote. Orain Madrilgo Auzitegi Nazionalak onartu beharko du proposamena. Jose Mari Etxanizek 21 urte daramatza Espainiako espetxeetan, bat ere odol kargurik eduki barik.



### *Gaur hasiko dira Bergarako jaiak*

Bitorianatxoren jaitsierak hasiera emango die gaur Bergarako jaiei, arratsaldeko 20:00etan San Martin plazan. Gaur hasi eta martitzenera bitartean jai giroa izango da nagusi. Azken urteetan moduan, barrakak Matxiategin jarri dituzte eta, horrez gain, San Martin plazan, Bideberrin eta Espoloian ekitaldiak izango dira egunero. Besteak beste, dantzaldiak, sukaldaritza lehiaketa, erraldoien alardea, entzierroak, txekorketa, dantza txapelketa, pilota partiduak, rock kontzertuak, umeendako jolas parkea edo martitzeneko herri bazkaria iragarri dituzte jaietarako, eta, duda barik, herritarrak zein Bergarara hurbiltzen direnak izango dira bost egunez protagonista nagusi. Ohizkoa denez, martitzen gauerdian bukatuko dira jaiak, Bitorianatxoren igoerarekin, alegia.



# Garbitzaileen greba

## Hilabete pasa daramate greban eta egoera larrituz doa

IKER BARANDIARAN

Gipuzkoako garbiketa arloko langileak greba mugagabean daude apirilaren 23tik, langile horiek, bost sindikaturen babesarekin –ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK– patronalari eta enpresariei presioa egitea erabaki zutenetik. Sindikatuen arabera, Gipuzkoan 1.000tik gora langile daude egoera horretan, eta gure bailaran, alor honetako langileriaren %85 greban dago orduda-nik. Hilabete eta astebete igaro ondoren, greba mugagabearen ondorioak agerian daude bailarako ikastetxe, kiroldegi, bulego, enpresa zein zaharren etxe askotan.

Sindikatuetako ordezkariek azaldutakoaren arabera, alor honetako langile askok, batez beste hileroko 80.000 eta 85.000 pezetako soldatapean dihardute lanean , eta euren eskubideak ez ei dira zenbait kasutan errespetatzen. Arrazoi horiengatik eta beste batzuengatik, sindikatu eta enpresariak hiru hilabetetan zehar negoziazioetan jardun ondoren eta irtenbide gertukorik ikusi ez, greba mugagabea egitea adostu zuten garbitzaileek.

Garbiketako langileek –gehiengoa emakumeez osatua– aldarrikatzen dituzten eskaeren artean, nabarmentzeko modukoak dira ondorengoak: egungo KPI %4tik %6ra igotzea, hau da, %2 gehitzea; lanastea 35 ordukoa izatea; jaiei eta asteburuei dagozkien plusa %20koa bilakatzea (egun, %10ekoa dute); eta bajak hartzen dituztenean, soldataren %85a jasotzea (%75aren ordez).

Greba mugagabea deitu eta hurrengo egunetik, egunero-egunero arratsaldeko 16.00etatik aurrera, Arrasateko Grupo San Juanen dagoen sindikatuen egoitzaren alboan biltzen dira bailarako garbiketa langileak. Kontzentrazioan bertan, grebaren gorabeherak aztertu, sindikatuetako ordezkariekin bilerak egin eta egin beharreko lan edo ekintzak zehazten dituzte. Horien artean, Arrasaten zein Donostian egindako manifestazioak, Lakuaraino egin zuten "txangoa" eta zenbait lantokitan, ordezko beste langile batzuek euren lana egin ez dezaten antolatzen dituzten piketeak.

Bitartean, Donostian, sindikatuak patronalarekin negoziatzeko saiakeretan dabiltza, baina oraindik ez ei da pauso handirik eman aurrera, eta ez dute planteamenduak eta eskaerak gerturatzerik lortu. Sindikatuetako ordezkariek zein langileek azaldutakoaren arabera, patronalak KPI %0,6 igotzea besterik ez du onartu, eta ez du hortik aurrera joan nahi. GOIENKARIA, bere aldetik, patronaleko abokatuarekin harremanetan jartzen saiatu da, baina ez dugu haren erantzun edota azalpenik lortu.

Bitartean, grebak aurrera darrai, eta grebalariek ez dute hilabete eta astebeten etxera pezeta bat bera ere eraman. Bestalde, ikastetxeetan eta zaharren egoitzetan gutxieneko zerbitzuak betetzen omen badituzte ere, bulego eta lantokietan ez egitea erabaki dute, presiobide eraginkorragoa izan dadin. Guzti horrek, eta enpresariek ordezko langileak bidali izanak, larriagotu dute arazoa.




Grebalariak egunero Arrasaten, Grupo San Juan alboan, konzentratzen dira.

## Garbiketa grebaren eragina herrietan

Apirilaren 23tik gaur arte Gipuzkoako garbiketa grebak irautea ez da marka makala – eta auskalo noiz arte iraungo duen–. Zenbait lekutan langileek gutxieneko zerbitzuak betetzen badituzte ere, agerian gelditzen da hain gutxi baloratuta omen dagoen baina ezinbesteko suertatzen den alor honek duen benetako garrantzia. Honen eragina ikustea besterik ez dago. Arrasaten, larrienen artean Musakolako eta Iturripeko kiroldegiak nabarmendu daitezke. Itxita egon dira sasoi batean eta duela pare bat aste arduradunek hauen zerbitzu batzuk zabaltzea erabaki dute komun, dutxa eta aldagelak erabili ezinik dauden arren. Oñati, Bergara eta Eskoriatzan, aldiz, ez dago halako egoera larririk zerbitzu publikoa eskaintzen duten tokietan, batez ere, hango kiroldegiek eta abarrek enpresa kontratatuez gain, bertako langileak dituztelako. Horrez gain, langileek salatu zuten Ulma taldearen enpresetan Legazpiko enpresa bat ordezko lanak egiten ari dela. Aretxabaletan, aldiz, Kurtzeberri eskolan eragin dezente du eta aste honetan ikastetxeko arduradun eta gurasoek udalari garbiketaren arduraduna den heinean gutxieneko zerbitzuak ziurtatu ditzan idatzizko eskaera luzatu diote. Bergaran ere izan da arazorik; izan ere, hauteskundeak egin zirenean, Aranzadi ikastola oso zikin zegoela ikusi zuten mahaietako arduradunek eta baita hautesleek ere. Ondorioz, ikastolako arduradunek gutun bat idatzi eta prentsara bidali zuten ikastolaren egoera higienikoaren zergaitiak jendaurrean azaltzeko asmoz.

ANTZUOLA | LASTERTASUN HANDIKO TRENA

# AHTaren proiektuaren aurkako errekurtsoa aurkeztuko du udalak

*Apiriletik AHT Gelditu Elkarlana taldeko kide da Antzuolako Udala*

AINTZANE IRIZAR

AHT Gelditu taldekoek, trenak ingurugiroari eragingo dizkion kalteak salatu dituzte, eta horregatik, hainbat errekurtso aurkeztuko dituzte. Sustapen Ministerioaren aurrean aurkeztu dute dagoeneko administrazioarekiko auzi-errekurtso bat. Orain, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plan Sektorialiari ere errekurtsoa aurkeztuko diote. Aurrerago, berriz, Bruselara jotzeko asmoa ere azaldu dute, Europako Batasunari kexa agertzera. Talde horrek azaltzen duenez, AHTaren proiektuak ez ditu inola ere kontuan hartu Europako Batasunak ingurugiroari dagokionez ezarritako irizpide eta arauak; esaterako, ez du zehazten sortuko diren lur hondakinekin zer egingo duten.

Duela pare bat hilabete sortu zuten Euskal Herriko hainbat erakunde eta taldek AHT Gelditu Elkarlana taldea. Tartean hamar udal daude, Antzuolakoa barne. Dakizuenez, Abiadura Handiko Trena gure bailaratik igaroko da, eta zeresan ugari eman duen gaia da hori. Tunel eta biadukto ugari egingo dituzte, azpiegitura garrantzitsua beharko du, beraz. Antzuolan ere bi tunel eta biadukto handi bat egin beharko dute trena igarotzeko. Deskarga aldetik lehengo Ariher enpresaraino (orain Goizper) biadukto handi bat egiteko asmoa dute. Hantxe, Ariher gainaldean, hain zuzen ere, tunelean sartuko da Abiadura Handiko Trena, eta Goizper enpresaren gainaldean bukatuko da tunel hori. Zati labur batean kanpoaldetik igaro ondoren, Goizperretik gertu, berriro ere tunelean sartuko da trena.

Azpiegitura honi, gainera, irudian ikus daitekeen moduan, Beasain-Durango korridorea gehitu behar zaio, gune batzuetan elkarrengandik oso hurbil igaroko liratekeelarik. Badirudi, beraz, urte gutxian asko aldatuko direla Antzuolako inguruak.



AHTa eta Beasain-Durango korridorea Antzuolan nondik igaroko diren. VALEN MOÑUX

BERGARA | 'BAI EUSKAL HERRIARI'

# 'Bai Euskal Herriari' herri ekimena aurkeztu berri dute

*Era guztietako pertsonek osatzen dute taldea*

MONIKA BELASTEGI

Hainbat lagunek "Bai Euskal Herriari" herri ekimena sostengatu eta babesteko taldea sortu dute. Joan den egubakoitzean aurkeztu zuten taldea, eta baita epe laburrerako dituzten asmoak ere. Batetik, udalari eskatuko diote Euskal Herritartasun Nazio Agiria tramita dezan. Bestetik, kamisetak aterako dituzte, eta baita, Pazkoetan salgai egongo diren mariskada bateko txartelak ere.

"Bai Euskal Herriari" ekimena, aspaldititik nazio eraikuntzan nahiz desobedientzian lan egiten duten hainbat lagunez osatuta dago. Guztiak ondorengo egiaztapenak biltzen ditu: Euskal Herria herri bat da, nazio bat da. Eta herria den neurrian, eskubide zibil eta politikoak dagozkio.

Espainiako eta Frantziako Estatuek, baina, urratu egiten dituzte etengabe eta une oro eskubide horiek, ekimeneko kideen ustez.

Horren aurrean, Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoen defentsa egitea eta horiek betetzea du xede ekimenak; "ez, aldiz, aldarrikatzea".




Esparru eta ideologia ezberdineko kideak atxikitu zaizkio ekimenari. MONIKA BELASTEGI

LEINTZ GATZAGA

## Herriaren baliabide naturalak hobeto aprobetxatzeko

JOXE ARANZABAL

Aitziber Gorosabel arrasatearrak ekainean aurkeztuko du Leintz Gatzagaren gaineko azterketa bat, herriak dituen baliabide naturalak (egur ikatza, gatza...) hobeto aprobetxatzeko. Lan horrek segida emango dio Oskar Azkaratek herriaren premiez egindako azterketari eta, hura bezala, Leintz Gatzagako Udalaren enkarguz egin du.

ELGETA

## Mendi federazioaren batzarra Espaloian

IBAN ARANTZABAL

Zapatu honetan, hilak 2 izango da batzarra arratsaldeko 5etan. Euskal Herriko 200 elkarte daude gonbidatuta. Antxon Bandresek adierazi digunez, elkartearen bulegoa Tolosan kokatu ala ez erabaki beharko du batzarrak, eta ostean, etorkizuneko proiektuez egingo dute berba, esaterako, eskaladaz, eski kanpainez, iraupeneko martxez...

OÑATI | URBIAKO TXABOLAK

# Urbiako txaboletan otorduak ematea debekatu du partzoneriak

*Artzainen ustez, partzoneriak fondarekin duen akordioaren ondorioa da*

AINTZANE IRIZAR

Aspaldiko ohitura da mendizaleek Urbiako txaboletan bazkaldu edo zerbait edatea. Hala ere, jarduera hori ez da legezkoa, ez daukatelako horretarako baimenik eta ez dituztelako Osasun Sailaren arauak betetzen. Partzoneriako presidente Tomas Aldasororen esanetan, "duela hilabete batzarra egin genuen artzainekin, eta saiatu garen arren, ezin izan dugu akordiorik egin eta, azkenean, geratu zaigun irtenbide bakarra debekatzea izan da".

Kexa ugari jaso ei dituzte. Hala, Foru Aldundia partzoneriarekin harremanetan jarri zen, partzoneriarena berarena baita Urbiako txabolen ardura. Artzainek bestela pentsatzen dute: "Osasun Sailak ez du zerikusirik izan, eta gezurra da salaketa egon dela". Euren ustez, partzoneriak eta ostatuak duten akordioaren ondorio da debekua; izan ere, akordio horren arabera, ostatuak izango luke ostalaritzan esklusibotasuna.

IRAHO

JATETXEA

Bergarako **Iraho jatetxeak** bere bezeroei jakinarazten die **Pazkoetako domekan (ekainak 3) jatetxea ZABALIK egongo dela.**

Jai zoriontsuak herritar guztiei.

Amillaga, 23 • BERGARA
**943 76 15 59**

GANESA
Tattoo & Body Piercing
MENTXU
tatuatzailearen estudioa
(Jai Zale tabernaren gainean)
TATUATU ETA GOZATU!

Olarte, 43 bis • ARRASATE • 943 71 18 24

BERGARA | DIRUA ESKATU MAILEGUAN

# Udalak 80 milioi eskatu ditu, aurrekontuari erantzuteko

*Kultura etxeko kostoa, uste baino handiagoa*

UBANE MADERA

Udalbatzarrak ohiko bilkura egin zuen eguaztenean. 15 gai jorratu zituen, horien artean, udalarendako mailegu bat eskatzea. Izan ere, Aramaioko Udalak ez du diru nahikorik herriaren beharrei aurre egiteko. Asko jota, 80 milioi pezetako mailegua eskatuko du, herriko lehentasunak zehaztu eta horien arabera. Esaterako, kultura etxea egiteko aurrekontua uste zutena baino altuagoa da eta Oletako saneamendu eta gasifikazio lanak ere egin gura ditu.

**OLETA**

Azken horren gainean, esan beharra dago udalbatzarrak saneamendu lanak egiteko proiektua Igorreko Olabarric enpresari eman diola, ehun milioi pezeta pasatxoko aurrekontuarekin eta 10 hilabeteko epearekin.

Edozelan ere, lanak ez dira 10 hilabete barru hasiko. Izan ere, saneamendu lanekin batera, gasifikazio lanak egin gura dituzte, eta, oraindik ere, lan horiek egiteko baimen administratiboaren zain dago.

**GOI TENTSIOKO DORREAK**

Jorratutako bestelako gaien artean, goi tentsioko dorre bat kentzeko herritar batek egindako dirulaguntza eskaera ez onartzea ere erabaki zuen.

Kontua da orain 20 urte pasatxo Aramaioko Udalak herritarren lur pribatuetan jarri zituela goi tentsioko zenbait argindar dorre. Baina 1996an lur horien arau subsidiarioak onartu eta, orain, horiek dauden lekuan eraikitzeko aukera onartu zuten. Ondorioz, horietako dorre bat kentzeko eskaera jaso du udalak, eraiki ahal izateko.

> **Zertzelada**
>
> **Kultura etxea egiteko aurrekontua hasieran uste zutena baino altuagoa da, eta Oletako saneamendu eta gasifikazio lanak ere egitea gura dituzte**

**AUZOLANA**

Bestalde, Diputazioari auzolanak egiteko dirulaguntza eskatzea ere onartu zuen udalbatzarrak. Barajueneko pilotalekua, zenbait teilatu eta areka konpontzeko, esaterako.

Bukatzeko, S. Oleagaren hilketa gaitzestea ere onartu zuten zinegotziek.

ARRASATE | EUSKARA INDARTZEKO ITUNA

# Udalak eta euskalgintzako taldeek hitzarmena sinatu dute

*Ia 80 milioi banatuko ditu ARKO, Txatxilipurdi eta AEDren artean*

UBANE MADERA



Arrasateko Udalak 80 milioi pta emango die euskagintzako taldeei. UBANE MADERA

ARKOk, Txatxilipurdik eta AEDk, Mondragoen euskalgintzan jarduten duten taldeek, alegia, hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalarekin eguaztenean. Horren arabera, 2001erako dirulaguntza jasoko dute euskara bultzatzeko.

ARKOk jasoko du kopururik handiena: 47 milioi pezeta inguru hain justu. ARKOk Goienaren esku utziko du euskalgintzan lan egiteko ardura. Gainera, Arrasate Irratia kudeatzen ere segituko du.

Bestalde, Txatxilipurdik eta AEDk ere dirulaguntza jaso dute. Gazteen elkarteak ia 26 milioi jasoko ditu, eta, besteak beste, GOITBn telebista saio bat egiteko asmoa du.

AEDk, bere aldetik, ia 10 milioi jasoko ditu. Dirulaguntza horiek udaleko Euskara, Gazteria, Kultura eta Hezkuntza sailetatik jasoko dituzte. Guztira ia 80 milioi banatu dizkie euskalgintzan ari diren taldeei.

Arrasateko alkate Xabier Zubizarretak, ARKOko presidente Aitor Orobengoak eta Txatxilipurdiko diruzain Xabier Olabarriak esku hartu zuten eguazteneko hitzarmenean.

**SAN JUAN DE DIOS**

Joan den egubakoitzean, hilak 25, San Juan de Dios ospitaleko zuzendaritzak eta langileek lan hitzarmena sinatu zuten.

Aste Santu aurretik hasi zituzten mobilizazioak San Juan de Diosko langileek, akordio batera iritsi ezinik. Horregatik, oraingo astean greba egitekoak ziren langileak. Egubakoitzean, baina, zuzendaritzak lau urterako hitzarmena sinatzeko proposamena egin zien. Hitzarmen horren arabera, urtean 21 ordu jaitsiko dute lanaldia. Soldatei dagokienez, berriz, kontsumo prezioen indizea (KPI) gehi 2.500 pezetako igoera izango dute lehenengo urtean eta 3.000 pezetakoa ondorengoetan.

Gauzak horrela, ospitaleko langileek onartu egin zuten hitzarmena.

ARETXABALETA | NAN EZ ERABILTZEKO MOZIOA

# Udaleko inprimakietan NAN ez erabiltzeko mozioa onartu dute

*Herri ekimen batek bildutako sinadurekin egin dute eskaera udaletxean*

AMAGOIA LASAGABASTER

Astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zuten aho batez, Nortasun Agiri Nazionalaren erabilera deuseztatzeko eskaera. Autodeterminazioaren Biltzarrak-en proposamenez etorri da aipatutako eskaera, eta burujabetzaren aldeko desobedientzia zibileko kanpainaren barruan kokatzen da.

Aretxabaletan, herri ekimen baten bitartez egin dute eskaria. Idatzian, udaletxean bete beharreko inprimakietan NAN ez erabiltzea eskatu dute. Izan ere, talde honen ustez, nortasun agiri horrek ez ditu Euskal Herriaren eskubide politiko eta zibilak haintzat hartzen.

Onartutako eskaeraren ondorioz udalak aurrerantzean NAN zenbakiaz bete beharreko laukitxoa kenduko du inprimakietan. Hala ere, legeak eskatzen dituen izapideetan, hala nola, errolda edo zerga agiritarako, beharrezkoa izango da oraindik ere NAN zenbakia.

ESKORIATZA | BASERRIKO GAIAK ETA ESKULANAK

# Baserriko produktuen eta artisauen feria zapatuan

*Herriko baserritarrek izango dute lehentasuna*

JOXE ARANZABAL

Aurtengo azoka antolatzeko bi milioi pezetatik gora behar izan dira. Euskal Herriko txoko guztietatik etorriko dira baserritarrak eta artisauak. Herriko gazta, kontserbak, ogia… ikusi, dastatu eta erosteko aukera ere izango da.

Antolakuntza lanetan Jose Arana ikastola aritu da eta honek oso kontuan izan ditu umeak. Izan ere, umeek egindako eskulanak jendaurrean erakutsi eta salgai jarriko dira. Jolas egiteko guneak eta puzgarriak ere izango dituzte.

Bestelako berritasunik ere izango da. Jose Mari Arkauzek, adibidez, turroia egingo du. Agustin Zugastiren lanekin, bestalde, erakusketa egingo da. Erakustokirik onenek sariak jasoko dituzte.

TXARRANTXA JATETXEA
Pentekoste jai zoriontsuak opa dizkizuegu.
Zubiarre • BERGARA • 943 76 15 84

ARGI PLASTIC
Leihoen fabrikazioa
PVC, aluminio eta poliuretanoa
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Zigarrola, 1 • 8. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 77 11 30



LENIZ MOTOR
JUAN M. ZUAZUBISKAR
BASO, LORATEGINTZA ETA NEKAZARITZAKO TRESNAK
Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78



VIKING
STIHL

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

## Zabalik



MATILDE
SAINZ
OSINAGA

# Euskara eta teknologia

**Gaur egun ezin dugu ezertaz hitz egin kontuan izan gabe gizartean bizi ditugun aldaketa azkarrak. Aldaketa horiek hainbat gertakariren menpe ematen ari dira, baina horietatik nabarmenenak hiru ditugu: *globalizazioa*, *migrazioak* eta *teknologia berriak*. Hiru eragile horiek modu batera edo bestera munduko hiztunengan eta hizkuntzetan eragiten ari dira, eta, ondorioz, hizkuntzekin erlazionatutako kontzeptuak ere aldatzen ari zaizkigu, didaktika barne. Horien artean ditugu eleaniztasunaren kontzeptua, giro-hizkuntzaren kontzeptua, lehenengo eta bigarren hizkuntzen kontzeptuak, etab. Alabaina, zoritxarrez, oraindik ez dakigu hizkuntzetan nolako eragina izango duten fenomeno horiek guztiek, ez hizkuntza handietan ezta txikietan ere. Momentuz, inor ez da ausartzen esatera hizkuntza txikiekin zer gertatuko den eta entzuten ditugun iritziak mota guztietakoak dira. Gauzak horrela, orain dela gutxi Felix Martiri entzundakora lerratuko naiz. Unescoren ordezkari honen ustetan, globalizazioa eta teknologia berriak gutxiengoen mesederako ere erabil daitezke, horiek erabiltzeko moduan dago gakoa, ez honenbeste, fenomeno horien baitan. Beraz, iritzi horrekin bat eginez gero, ezer baino lehen teknologia berriak eta globalizazioaren fenomenoak eskaintzen dizkiguten bide eta tresnak ezagutu beharko genituzke eta horiek garatzen eta erabiltzen hasi beharko genuke, gaur bertan, euskararen mesedean. Etorkizunean gerta daitekeenaren inguruko beste hipotesi ezkorragoetara lerratuko bagina, aldiz, ez genuke irtenbiderik aurkituko. Horregatik, nik, behintzat, apustu egingo dut fenomeno horiek guztiek eskaintzen dizkiguten bideak eta tresnak garatzearen alde.**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

### Alfredo Gonzalez Chirlaqueri, Bergarako Udal Musika Bandako zuzendariari

Musikazalea naizenez, ahal dudan guztietan Bergaran izaten diren kontzertuetara joateko ohitura daukat. Aspaldian baina, huts handi bat somatzen dut Bergarako Udal Musika Bandako emanaldietan, kontzertuetako programetan euskal konpositoreak behin eta berriz baztertuta geratzen direla alegia. Joan zen urtean ere, udaletxera idatzi bat bidali nuen nire kexa azaltzeko, baina ez dakit idatzia pertsona egokiarengana heldu ote zen. Niri behintzat inork ez dit jaramonik egin. Zoritxarrez ez dut eduki aukerarik gure herriko kultura behar den moduan ezagutzeko, eta gustatuko litzaidake Euskal Herriak eman dituen konpositore handien lanak entzuteko aukera izatea. Kanpoko konpositoreen lanak ere asko gustatzen zaizkit, baina lehenik eta behin gure kultura defandatu beharra daukagula uste dut.Besterik gabe, jaso ezazu nire agurrik beroena.

GLORIA LARRAÑAGA URRUTIA
Bergara

### Abiadura Handiko Trena, zertarako?

Gero eta maizago entzuten ari gara Abiadura Handiko Trenari buruzko berriren bat, baina zer da proiektu hau?

Guri behintzat, EuskalHerriko ekosistemari heriotza ekarriko dion balio gabeko proiektua iruditzen zaigu. Zergatik diogu hau?

Paris eta Lisboa elkarturik azkarrago iristeko, baina geltokiak non? Herri gehienak geltokirik gabe; beraz, zer aurrerapen ekarriko digu? Zertarako?

Txartelaren kostua zenbatekoa izango da? Gaur egun errepideetako garraio publikoa erabiltzeagatik ordaintzen duguna baino %100 gehiago ordaindu beharko dugu.

Zenbat balioko du trenbide berri honek? 3.000 milioi pta kilometro bakoitzeko. Nondik aterata? Gure poltsikoetatik. Nork erabiltzeko? Diru asko dutenek, guk ez behintzat.

Mugitu behar duten lur guztiarekin zer gertatuko da? San Mamesen neurriko 1.000 zelai, metro bat materialez estali beharko dituzte.

Gastatutako gure diru hori errekuperatuko dugu? Badirudi ezetz, irabaziak enpresa pribatu batek jasoko ditu, trenaren kudeaketaz bera arduratuko baita.

Ondorioz gure basoak, zelaiak, baserriak eta mendiz osatutako 7 milioi m2 desagertuko dira betiko.

Badakigu gutako askok pentsatuko dutela, "baina zer dela eta zoramen hau orain, gure herritik ez bada pasatzen..."

Ez, ez da gure herritik pasatzen , baina Euskal Herriko biztanle guztiok ordaindu beharko ditugu kalteak, eta ez pentsa "exageratzen" ari garenik, denoi egokituko zaizkigu ondorioak.

Eskutitz hau bukatzeko, ekainaren 16an Donostian izango den manifestaziora gonbidatzen zaituztegu, gure ondorengo belaunaldiendako etorkizuna aldarrikatzera.

Anima zaitezte!

MAYA INGURUMEN TALDEA
Elgeta

## Hemeroteka

### Indarkeria

Urte gehiegi daramagu totalitarioak elikatzen, eta minbizia hedatzen ari zaigu. Aurre egin beharra daukagu lehenbailehen gaitzari, pluralismoa sustatuz, gizarte librean biziko bagara. "Gizona naiz euskaldun baino lehenago eta... gauza guztien gainetik, antifaxista eta antitotalitarioa betidanik", ziotson Koldo Mitxelenak Eugenio Ibarzabali. Horixe aldarrikatu behar dugu guk ere bazter guztietan. Beren burua ezkertiar aurrerazale ikusi nahi omen eta nolatan ez dira jabetzen historia osoko totalitarioen ezaugarriak berdin-berdinak direla, eta horiexek babesten dituztela hemen?

Iñaki Zubizarreta
EUSKALDUNON EGUNKARIA / 2001.05.30

### Ez dute antzik ere

Ez dut Vera ezta Barrionuevo ere ezagutzen. Ez ditut, halaber, Unai Parot ezta kartzelan izango diren hainbat pertsona ezagutzen.

Badute antzekotasunik batak besteekin, baita ezberdintasunak ere(...)

(...) Batzuek egun gutxian sufrituko dute kartzelaren oinazea, boterean dauden eta euren artekoak direnek egin beharreko tramiteak egin arte. Besteek, Unaik eta bere kideek, aginpidean daudenek duten mendeku egarria ase arte egon beharko dute barruan. Eta egarri hori aseezina da.

Unai Paroti, herenegun, kristoren makila salda eman zioten eta Barrionuevori eta Verari inork ez dio ukiturik ere egingo, ondo irabazia izango balute ere. Askok uste dute hala beharko lukeela. (...)

(...) Denak dira preso, baina ez eskubide berberekin. Eta seguru, Unai eta bere kideak besteen antzik ez izateaz pozten dira.

Oharra: Zutabe hau amaitzear nagoela irten dira kartzelatik. Errealitateak literatura gainditzen du. Harrigarria.

Martin Garitano
GARA / 2001.05.31

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

Dira, dira, zezenak dira...", udako jaiekin batera, hementxe ditugu denboraldi honetako lehen zezenketak. Izan ere, aspalditik, oso aspalditik, ikuskizun bihurtu ditugu zezenak. Baina aspaldi ez bezala, eztabaida ere ekartzen dute. Askok gozatzen dituzten bezala, beste askok krudelkeriatzat jotzen dituzte zezenketak. Antzinakoak eta oso geureak omen, baina amaitu beharreko ohitura zaharra. Bergarako jaiak direla eta, orrialde hauetara ekarri nahi izan dugu eztabaida.

## Zer deritzozu gure jaietan zezenketa antolatzeari?

### Zezenketak ez du zentzurik gaur egun



KLARA ELKOROBARRUTIA
Ekologistak Martxan

Behin liburu batean irakurri nuen, zezen-festa kultura bada, kanibalismoa gastronomian sartu beharko litzatekeela; izan ere, lagun hurkoa lapiko handi batean sartu, su motelean egosi eta irenstea, zeremonia zaharragoa, kilikagarriagoa eta filosofikoagoa baita, ganadua faktorian gizendu, zezen-plazan sartu eta publikoa torturaren eta odolaren ikuskizunarekin degradatzea baino.

Krudelkeria gorena da tortura eta heriotza horren aurrean gozatu, poztu eta txalo egitea.

Berant Erdi Arotik XVIII. mendearen hasieraraino, Europa osoa superstiziosoa eta krudela zen, heriotza eta tortura eguneroko gauza ziren. Ingalaterrako zezen-festak Espainiakoak bezain krudelak ziren. Baina, hala eta guztiz ere, ikaste-prozesu luze baten ondoren, ingelesak gaur egun sentikorrak dira animaliekiko, eta bukatutzat jo dituzte horrelako praktikak.

Tradizioak aipatzen dituzte, baina tradizioak izan ziren, baita ere, esklabutza, alargunak hileta-suan hiltzea, gizakiak hiltzea... Nire aiton-amonek eskuak baino ezer gutxi gehiago zuten lurra lantzeko, errekara joaten ziren arropa garbitzera, elizaren parafernalietara joatea ezinbestekoa zen bizitza salbatzeko. Eta gaur egun harrigarria iruditzen zaigu Indian emakumeei klitoria kentzeko tradizioa oraindik indarrean egotea.

Animaliaren Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikuluak zera dio: "animaliak biktima diren biolentzia-eszenak debekatu egin behar dira". Dokumentu hau Nazio Batuek eta Unescok dute onartuta, eta Espainiak berretsita.

Europako Elkarteak boikota egiten die zezenketei eta animaliekiko edozein krudeltasun-portaerari.

Ibarretxe lehendakariari eta Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diet ausartak izan daitezela, eta jendaurrean gaitzets dezatela praktika hau, pertsona bezala hazi eta herri hau eraiki nahi badute.

Ez dut nahi Euskal Herrian, Gure Herri Maitean, ezta munduko beste edozein lekutan ere, ikuskizunek ikuslea miope, bihozgabe edo sadiko bihurtzea; izan ere, animaliak sufritzen ikusiz gozatzea, izaera krudel eta sadikoen jarrera propioa baita.

**"Tradizioak aipatzen dituzte, baina tradizioak izan ziren, baita ere, esklabutza, gizakiak hiltzea..."**

### Zezenketak herritarren gustura



JOSE MARI LARRAÑAGA
Zezenzalea

Gure artean aspaldikoa da zezenekiko zaletasuna. Herriko jaietan guk beti ikusi ditugu sokamuturra eta entzierroa. Baita zekorketak ere, nahiz eta hauek noiz edo behin egiten ziren. Gu giro horretan zaletu ginen.

Orain bederatzi urte, udaletxea konpontzen ari zirenean, plaza hartuta zegoen eta ezin ziren enbolauak egin. Udalekoek guri eskatu ziguten ea haren ordez beste zerbait antolatuko genuen. Eta guk zekorketa bat antolatu. Behin behineko plaza bat kontratatu, toreatzaileak ekarri, publizitatea prestatu... Sekulako ikusmina sortu zen.

Ikusminarekin batera, berriz, eztabaida ere etorri zen. Zezenketekin bat ez datozenek mahaiak ipini zituzten kalean, zezenketaren kontrako sinadurak batzeko. Hiltzaile eta espainolista deitu izan digute. Baina ez orduan eta ezta gaur ere, ez dugu asmorik eztabaida horietan sartzeko.. Hor konpon bakoitza bere ikuspegiarekin.

Garbi utzi nahi dugu herritarrei zerbitzu bat sortzeko asmoarekin sartu ginela langintza honetan. Ulertzen dugu ikuspegi desberdinak egotea, baina hor sartuko bagina, eztabaidak ez luke akaberarik izango.

Urtarrilean hasten gara batzarrak egiten eta, mila tramite egin behar diren arren, gustura ibiltzen gara. Lana musutruk egiten dugu, ez dugu ezer kobratzen, baina gauzak ondo irteten direnean, sekulako poza hartzen dugu.

Hasieran domeka arratsaldean jarri genuen zekorketa, batez ere jaietako egitarauan ezer ez zegoelako gure adineko jendearentzat. Orain, berriz, gure adinekoak eta jende gazte asko joaten da. Arrakasta itzela dauka. Urtero bete edo ia bete egiten da zezen-plaza. Antolatzaileon artean ere, erdia-edo oso gazteak dira. Horrek esan nahi du gure arteko zezenzaletasunak segida izango duela.

Aurten, hala ere, ez egiteko zorian izan gara. Izan ere, behi eroen kontu horrekin, orain dela gutxi arte ez genekien baimena eskuratuko genuen ala ez. Egin egingo dira, baina. Zapatuan, errekortadoreak. Domekan, zekorketa. Astelehenean eta martitzenean, enbolauak plazan. Eta goizero, entzierroa. Denok ere, ondo ibili jaietan.

**"Herritarrei zerbitzu bat sortzeko asmoarekin sartu ginen langintza honetan"**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Onartuko zenuke Athletic-ek atzerritarrak fitxatzea?*

# Gora eta Behera

**HAUTESKUNDEETAKO PARTE HARTZEA**

Badakit hauteskundeak orain hiru aste egin zirela, baina herritarren parte hartzea azpimarratu nahiko nuke. Egoera zaila zen eta jendeak erantzun egin du: parte hartuz eta emandako mezuan ere.

**ALDERDI ESTATALISTAK**

Denbora guztian demokrazia dute ahotan, baina nahi dutena boto bidez lortzen ez dutenean, hala ere beren ikuspuntua inposatu nahi digute. Batasuna aldarrikatzen dute, baina herri honek ez du batasunik behar, erantzunak baizik.



JABIER ERRASTI
Eskoriatzako Axtroki elkarteko kidea

# Koplak

### Zezenak

Bergaran jaiak direla eta
jarri dute zezen plaza
mokolo hauek ulertzea ere
ez da batere erraza

Ez dakit nola jarria dute
izena zezenzaliak
beraiek puro haundiarekin
sufritzen animaliak

Toreroa praka estuekin
txapela eta abarkak
dirudi heldu direla berriz
Bergarara karnabalak

Txapela bota airera eta
dio "va por ustedes"
zuentzat zerbait esan nahiko du
baina gehienentzat batez

Zezen plaza bide erdiraino
ala nola diran gauzak
nahiago nuke botako balu
jai aurretik autobusak

Hezurretan dauden zezen txiki
omen dira kastakuak
horretarako hurrengo urtean
ekarri Elosukoak

IGOR ORUESAGASTI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Hamar urte joan dira Anne Igartiburu Arrasate Telebistan gaztetxoentzako saio bat egiten hasi zenetik hona. Urte horietan ETB, Tele 5 eta TVE katetan egin du lan. Aste honetan bertan *"Corazón de…"* programaren 1.000. saioa aurkeztu du. Arrakastaren aparretan dago Anne, baina beti bezain amultsu hartu gaitu.

JOXE ARANZABAL


ENRIKE-MORENO

# *Anne Igartiburu*

TELEBISTAKO AURKEZLEA

# "Nahi bai, baina jendea konturatu behar da nik ezin ditudala hemengo arazoak konpondu"

## ALBISTE ARROSAK

**"Neureganatu egiten ditut albiste horiek eta gero ahalik eta naturaltasunik handienarekin ematen saiatzen naiz"**

## MAIATZAREN 13KO HAUTESKUNDEAK

**"Herritarren parte hartze handia izan zen niretzat ezusteko atsegina. Jendeak konpromisorako nahia agertu zuen"**

**ATBn eman zenituen lehen pausoak telebistan. Nolatan hasi zinen han?**

Ni ibilia nintzen Txantxibiri Irratian, Elorrion, eta baita Durangoko Irratian ere. Gustukoak nituen herri komunikabideak eta herri mugimenduak. Orduan, Ikerlanen nenbilela lanean, Asier Arangurenek eman zidan telebistan lan egiteko aukera. Eta nik onartu. Lehiaketa bat egiten hasi nintzen, *ATBketan*. Lehiakideak bi taldetan banatzen ziren eta kontua zen ea zein taldek ekartzen zituen lehenago nik agindutako objektuak. Polita zen, zeren familiartekoak eta lagunak gogotsu saiatzen baitziren lehiakideei laguntzen. Saiorako behar nituen gauzak, zerrendak-eta, etxean prestatzen nituen. Ikusten duzu, mahiko gauza "casheroa" zen.

**Zer deritzozu orduko hasiera hari?**

Orduan, nire gustuko gauzak egiten nituen. Orain, berriz, lan bihurtu zait. Hala ere, saioen eragina lehen baino handiagoa izan arren, orduko ilusioaz egiten dut lan. Oso oroitzapen onak ditut ordukoak. Telebista hurbilagoa zen, ia familia giroan egiten genuen lan. Orain ez dakit horrela segitzen duzuen, baietz pentsatu nahi dut, baina horrelako telebistak —hurbileko kontuak sartzen dituztenak etxean— beharrezkoak ikusten ditut.

**Ondoren ETBra pasatu zinen. Asko aldatu ziren gauzak?**

Gauza batzuetan, bai. Bakarka, adibidez, Arrasate Telebistan egin nuen azken elkarrizketa saioan, Euskal Herrian ezaguna zen jendea ekarri nuen: Bernardo Atxaga, Xabier Arzalluz, etab. ETBko *Boulevard* saioan, ostera, nazioarteko jende ezaguna izan nuen: Catherine Deneuve, Glenda Jackson, Omar Shariff… Beste maila bat zen. Saioak zuzenean izaten ziren eta han ere txakurrak ortozik, bikoiztaileen mikroak huts egiten zuenean, gonbidatuei neuk egin behar izaten nizkien galderak ingelesez.

**Hurrengo urratsa Tele5 katean egin zenuen. Jauzi handia izan zen?**

Bai. Oso gustura ibili nintzen han. Nire irudia aldatuz joan zen eta neu ere seguro eta seguruago sentitzen nintzen. Aukera izan nuen hainbat gauza erabakitzeko. Esperientzia handia hartu nuen. Gaur egun, adibidez, ez dut batere arazorik diseinatzaile batengana joan eta nahi dudan jantzia hartzeko. Eta berdin, ilea moztu behar dudanean.

**Azken esperientzia TVEkoa da. Oso bestelakoa izan da?**

TVE enpresa publikoa da eta oso giro desberdina du. Kanpotik datorren langile moduan egiten dut lan nik, baina beste askok lan arazoak dituzte, eta beren lan-eskubideak defendatzeko dihardute borrokan, eta hori igarri egiten da.

**Eroso sentitzen zara albiste arrosak ematen?**

Bai. Telebista egitea izugarri gustatzen zait. Neureganatu egiten ditut albiste horiek eta gero ahalik eta naturaltasunik handienarekin ematen saiatzen naiz. Saio atsegina egiten zait. Gainera, arratsaldeak libre izaten ditut eta antzerkia, arineketa eta horrelakoak egiteko aprobetxatzen dut.

**Ospetsu bihurtu zaren neurrian, zu zeu ere mundu arrosako pertsona famatua egin zara. Zelan daramazu ospea?**

Hori nire soldataren barruan sartzen da. Saiatzen naiz nire ingurukoak babesten, inork trabarik egin ez diezaien, baina askotan ezin da. Asko sufritu dute Ukrainatik ekarri nituen umeek, nire mutil-lagunek, aitak… Baina beno, berriro esango dizut, arazo txiki horiek nire soldataren barruan sartzen dira. Ez dago bueltarik.

**Aurkeztuko zenuke albistegi bat?**

Bai. Hala ere, nahiago dut magazin formatua: elkarrizketak, albisteak, musika eta abar tartekatzen dituen saioa. Albistegiak serioegiak dira, eta askotan bestelako karga eramaten dute.

**Izan duzu arazorik euskalduna zarelako?**

Denetik gertatzen zait. Batzuek denetik esaten didate. Denei esaten diet Elorrion jaio nintzela eta Elorriokoa naizela, eta harro nagoela hemengoa izateaz. Nahi bai, baina jendea konturatu behar da nik ezin ditudala hemengo arazoak konpondu.

**Orain asko ez dela, zenbait komunikabidetan agertu zen kosta egiten zitzaizula "Espainia" esatea.**

Ez da egia, baina sekulako boikota egin zidaten horren kontura. Baten batek probokatu nahi izan ninduen, ea nire onetik ateratzen nintzen, baina ez dute lortu. Hori zela eta, eskutitz asko jaso ziren TVEn, ni botatzeko eskatzen. Nik, ordea, garbi adierazi nuen hori ez zela egia, erabateko profesionala naizela eta "los deportistas españoles" esan behar dudanean, esan egiten dudala. Uste dut jendeak ulertu duela.

**Sorpresa hartu zenuen maiatzaren 13ko emaitzak ikusita?**

Egia esanda, ez nekien zer gerta zitekeen. Hala ere, herritarren parte hartze handia izan zen niretzat ezusteko atsegina. Jendeak konpromisorako nahia agertu zuen.

**Antzerkian eta modelo moduan ere lan egin duzu. Segitzeko asmoarekin?**

Modelo moduan ez dut hainbeste lan egin, ez pentsa. Antzerkian, bai. Odio a Hamlet antzeztu nuen eta Ercilla saria eman ziguten. Educando a Rita ere toki askotan antzeztu dugu. Orain dela gutxi amaitu dugu.

**Zineman, noizko?**

Egin ditut film batzuk. Telleria anaiekin, *Menos que Cero* egin nuen eta Juanjo Puigcorvé-rekin, adibidez, *Suerte*. Euskal Telebistan *Nire Familia eta Beste Piztia Batzuk* filmatu nuen. Baina, zorionez, hor ez dira proiektuak amaitzen. Udan Manuel Rivas idazle galiziarraren *El Lápiz del Carpintero* eleberrian oinarritutako filmean parte hartuko dut. Moja euskaldun bat antzeztuko dut, Anton Reixa-ren agindupean. Galizian filmatuko da. Eta hori amaitutakoan, irailean edo, antzerkiari ekingo diot berriro.

**Lehen arineketan egiten zenuen. Orain ere bai?**

Bai. Min hartuta ibili naiz, baina fisioterapeutarekin nabil eta hasi naiz lasterka egiten. Batzuetan aitarekin joaten naiz, Axpe aldera, baina aita ni baino gogorrago dabil orain. Madrilen nagoenean, ostera, hango parkeetan egiten dut atxintxiketan. Musika entzutekoak ipini, eta banoa.

**Bost urtera iristen ez diren bi anaiatxo dituzu. Zer moduz moldatzen zara eurekin?**

Gorkak lau urte ditu eta Igorrek, bat. Niretzat semeak bezala dira eta izugarri maite ditut. Badut beste anaia bat, Urko, 30 urte dituena, eta haren umeak ere, Leirek, urtebete baino ez du.

**Azken aldi honetan gutxi ikusi zaitugu hemen…**

Ez pentsa. Dezentetan etortzen naiz Elorriora. Joan den astean, esate baterako, Gasteizen izan nintzen, saltoki handi batzuen inaugurazioan. Gaur, Bilbon. Eta domekan pilota finala ikustera noa aitarekin.

**Mila esker, Anne, eskaini diguzun denboragatik eta segi gogor.**

Ez aipatu eskerrik niri, gero. Oso gustura egin dut berba zurekin. Besarkada handi bat eman denoi eta zuek ere gogor segi.

**Agur.**

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

*Podiuma*

# Pako Iriondo | MENDI FEDERAZIOKO PRESIDENTE OHIA |

**Kostaldeko mendi elkarteek, Debagoienekoak tartean, Pako Iriondo (Elgoibar, 1926) Euskal Mendi Federazioko presidente ohia omenduko dute domekan Aretxabaletan. Iriondok Kostaldeko ordezkaritzaren kargua onartu zuen 1968an eta birritan izan zen Euskal Mendi Federazioko presidentea: 1971tik 1976ra eta 1986tik 2000. urtean kargua utzi zuen arte. Omenaldiaren atarian, Iriondok euskal mendizaletasunak munduan zehar lortutako prestigioa goraipatu du.**


Pako Iriondok mendi elkarteen omenaldia jasoko du domekan.

**"Euskaldunok beti izan dugu mendiarekiko lotura berezia. Federaziorik indartsuena gurea da, 20.000tik gora federaturekin"**

**"Gaur egun Himalayara orain dela 50 urte Pirinioetara baino euskaldun gehiago doaz. Gure mendizaleek prestigio handia dute"**

**Nola gogoratzen dituzu Kostaldeko ordezkaritzan lanean hasi zinen urteak?**

1968an euskal mendizaletasuna egoera oso larrian zegoen. Urtebete lehenago, 1967an, sekulako iskanbila sortu zen Andeetara egindako espedizio batean ikurrin bat agertu zelako. Hainbat atxiloketa izan ziren eta Federazioa desegin zen. Sasoi hartan talderik indartsuenak Kostaldeko ordezkaritzan biltzen ziren: Club Deportivo (Eibar), Morkaiko (Elgoibar), Pol-Pol (Bergara)... Talde hauek aitzindariak izan ziren eta haien atzetik besteak etorri ziren: Besaide (Arrasate), Aloña Mendi (Oñati), Pagoeta (Zarautz) eta beste hainbat. Guztion artean lan bikaina egin genuen eta 1971n Euskal Federazioko presidente izateko proposatu ninduten. 1976ra arte egon nintzen eta Federazioa laga nuenean egoera bestelakoa zen: 5 milioi pezetako superabita genuen eta *Pyrenaica* aldizkaria berriz zutik jartzea lortu genuen. Gainera, Federazioaren urrezko ezteiekin bat eginez, 1974an Everestera lehen espedizioa egin zen, *Tximist* izenekoa. Espedizio hura gailurra lortzeko zorian egon zen.

**Ordutik hona gailur asko lortu dituzte euskal mendizaleek.**

Gaur egun Himalayara orain dela 50 urte Pirinioetara baino euskal mendizale gehiago doaz. Euskal mendizaletasunak prestigio handia lortu du mundu osoan zehar, eta hor daude Juanito Oiartzabalen edo Iñurrategi anaien lorpenak; Oiartzabalek 14 zortzi milakoak lortu ditu jadanik eta Iñurrategi anaiek, 33 eta 32 urterekin, hamabi zortzi milako egitea lortu zuten. Horrelako adin gaztearekin munduan ez dago beste kasurik hori egin duenik.

**Zein da euskal mendizaletasunaren arrakastaren sekretua?**

Euskaldunok beti izan dugu mendiarekiko lotura berezia. Euskal Herri osoan mendi ikusgarriak ditugu eta edertasun hori eragingarria izan da mendizaletasuna pizteko. Estatuan, federaziorik indartsuena gurea da, 20.000tik gora federaturekin. Horrez gain, formazio on bat emateko monitore kopuru handia dago, sorospen taldea ere bai, Atxarte Estatuko eskalada eskolarik onenetakoa da, eta mendiaren inguruko ekitaldiak eta irteerak nonahi antolatzen dira. Euskal Herrian izugarrizko afizioa egon da beti, eta maila handiko mendizaleak ditugu: eskaladan ere hor ditu Usabiaga, Josune Bereziartu, Leire Agirre... eta horren atzetik beste pila bat datoz. Euskal mendizaletasuna tope onean dago.

**Presidente karguan egon zaren urteetan zein izan da lorpenik handiena?**

Asko dira. Niretzat gozamena izan da lan honetan jardutea. Gure mendizaleen lorpenak goraipatzekoak dira, eta 1990ean UIAAren (alpinismo elkarteen nazioarteko erakundea) batzarra Donostian egitea edo 1999an Federazioaren 75. urteurrena Elgetan ospatzea gauza handiak izan ziren baita. Euskal mendizaletasuna ezagutzera eman dugu eta horri eutsi behar diogu.

EDU MENDIBIL



# Nire Pronostikoa

REYES AZKOITIA / Elgetako Txirrindulari Elkarteko lehendakaria

Lehenik eta behin, esan beharra daukat ni Eugizale amorratua naizela, hortaz, pronostikoa buruaz baino bihotzaz eman dut. Hala ere, azken urteotako partiduak erreferentziatzat hartzen baditugu, Eugik emaitza hobeak lortu ditu eta, nire ustez, aurten ere indartsuago dabil. Hori gutxi balitz, argi geratu da finaletan Belokik behera egiten duen bitartean, Eugik amorru biziz jokatzen duela, eta horri esker partidu asko irabazi ditu. Fisikoki bi pilotariak egoera berean egonda ere, finaletan askotan buruak agintzen du, eta alde horretatik Agoizko pilotariak abantaila izaten du. Aurreko urteko finalean argi gertu zen hori, eta aurten ere gauza bera gertatuko dela uste eta espero dut.

**Oraingo asteburuko partidua**

| | |
|---|---|
| Eugi | 22 |
| Beloki | 14 |

ATZOKO TXAPELDUNAK

# Asier Guenetxea
## Txirrindularia


Asier Guenetxea atxabaltarra Euskadi taldeko maillotarekin.

**Artiach eta Euskadi taldeetan aritu zen**

**19 lasterketa irabazi zituen profesionaletan**

**Portugaleko Itzulian lider izatera iritsi zen**

Orain dela bost urte txirrindularitza utzi zuen arren, nolabait ziklismoari lotuta jarraitzen du Asier Guenetxeak: Euskalteleko kirol zuzendaritzan ari da eta, normala denez, oso pozik dago taldeak aurtengo Tourrean parte hartuko duelako. Asierrek ez zuen aukera hori izan. Bost urte eman zituen profesionaletan, Artiach eta Euskadi taldeetan, 1992tik 96ra, eta batez ere Estatuko zein Portugaleko probetan aritu zen. Aurretik, afizionatuetan, karrera mordo bat irabazi zuen Fagor eta Kaiku taldeekin. Asier sprinterra genuen, azken metroetan primeran moldatzen den horietakoa. Kategoriara egokitzea kostatu zitzaion arren, garaipen dezente lortu zituen: "lehenbiziko urtean, 92an, nahiko sufritu nuen, kosta egiten zitzaidan tropeleko erritmora ohitzea. Hala ere, orduan lortu nituen emaitzarik onenak". Guztira, 19 lasterketa irabazi zituen Asierrek profesionaletan, horietako 12 Portugalen: "Artiachek interes komertziala zuen han eta askotan joaten ginen. Bertako itzulian lider egon nintzen bi etapa irabazi eta gero, baina laugarren egunean, intsolazio bategatik, etxera bueltatu behar izan nuen". Zaragoza-Sabiñanigo Klasikoa ere irabazi zuen, eta Espainiako Itzulia birritan korritu zuen. Artiach laga eta gero, Euskadi taldearekin fitxatu zuen: "proiektuarekin sinisten nuen eta hasiera zaila izan arren, guztion arteko elkartasuna goraipatuko nuke. Oso giro ona genuen". Txomin Perurena zen taldeko zuzendaria.

1996an txirrindularitza laga zuen: "eliteko kirolari guztiok presio psikologikoa jasan behar izaten dugu eta neketsua da. Azken urtean ez nuen emaitza onik lortu eta lanean hastea erabaki nuen". Fagorreko hozkailu plantan ari da lanean, prozesuetako ingeniari gisa. / E. M.

***"Lehenbiziko urtean nahiko sufritu nuen, kosta egiten zitzaidan tropeleko erritmora ohitzea. Hala ere, orduan lortu nituen emaitzarik onenak"***


Asier Guenetxea • Aretxabaleta • 1970

# III. Errugbi eta Garagardo Festa

## Asteburuan, errugbiak eta garagardoak bat egingo dute nazioarteko III. topaketan

Hirugarren urtez, Arrasate Errugbi Taldeak nazioarteko zazpinako errugbi topaketa antolatu du, eta horrekin batera garagardoaren festa ere izango da.

Hori guztia errugbia herritarrei hurbiltzeko aitzakia besterik ez da, eta aurten ere Arrasate Errugbi Taldeko mutilek majo egingo dute lan. Topagunean talde ezagun askok esku hartuko du, baina kanpoko taldeek ere jokatuko dute Euskal Herri mailako errugbi festa handi horretan. Besteak beste, Elorrio, Eibar, Zarautz, Hernani, Atletico Bera Bera, Ordizia eta Gaztedi taldeak izango dira, baina horiez gainera, Baionako Aviron, Santanderko Independiente, Logroñoko errugbi taldea eta baliteke Bordeleko beste talde bat ere etortzea.

Jai handia egubakoitzean hasiko da. Arrasateko herriko plazan karpa zabalduko dute, 19:00etan, eta han, afaltzeko aukera izateaz gain, 22:00etan musika emanaldia izango da. Zapatuan, egunez, behintzat, kirola izango da protagonista, eta 10:30etik aurrera errugbiaz gozatzeko aukera izango dugu. Goiz partean Gipuzkoa eta Nafarroako selekzioetako kadete eta gazte mailakoen partidak jokatuko dira, eta eguerdian herri bazkaria izango da karpan. Errugbi jaiaren une gorena arratsalde partean etorriko da. Atxabalpeko futbol zelaian aurrez aipatu dizkizuegun taldeen arteko zazpinako errugbi partiduak izango dira ikusgai, eta zelaian jokatu beharrekoak amaitzen direnean, hirugarren zatia hasiko da, hau da, parranda. 20:30ean sariak banatuko dira herriko plazan, eta gero, musika emanaldi batek zuzenean girotutako herri afaria izango da. Guztira 300 errugbi jokalari elkartuko dira Arrasaten; hortaz, esan beharrik ez dago giro paregabea izango dela. Ezbairik gabe, aukera ederra errugbiaz eta gainerako guztiaz gozatzeko.

XABI URZELAI



**Oraingo asteburuan errugbia eta garagardoa izango dira protagonistak.**




# Eskoriatza-Arrasate herri krosa

## Aurten, bederatzigarren aldia izango du herri krosak

Oraingo domekan, ehunka lasterkarik Eskoriatza eta Arrasate artean dauden zortzi kilometro eta laurehun metroak beteko dituzte, baina erronka distantzian baino abiaduran egongo da, izan ere, helmugara lehenengo heltzen direnek sari bikainak jasoko dituzte.

Arrasate Atletiko Taldeak antolatzen duen kros horrek parte hartze handia izan ohi du, eta atzerriko jendea ere izaten da proban. Irteera Eskoriatzan izango da, eguerdiko hamabietan. Proban parte hartzeko 700 pezeta ordaindu behar dira, eta izena emateko epea proba baino ordu erdi lehenago amaituko da. Aurten, hiru maila izango dira; orokorra, juniorra (1982-83 eta 84 urte bitartean jaiotakoak) eta beteranoak.

## *Kirolabur*

**DEBAGOIENA/**
I. TRIATLOIA

Hurrengo zapatuan, hilak 9, Debagoieneko lehen triatloia jokatuko da Urkulun. 16:00etatik aurrera, parte hartzaileek kilometro eta erdi lasterka, berrogei kilometro bizikletan eta beste hamar kilometro lasterka egin beharko dituzte. Federatuta ez daudenak 4.000 pezeta ordaindu beharko dituzte ekainaren 4a baino lehen, eta federatuek 2.000 pezeta ekainaren 7a baino lehen.

**BERGARA/**
GORLAKO IGOERA

Automobilak eta lastertasuna atsegin dituztenek aukera paregabea izango dute ekainaren 9an, zapatua, XI. Gorlako igoeraz gozatzeko. Halaber, aurten ere parte hartzaileen eta ikusleen erantzun bikaina espero da. Proba 16:00etan hasiko da eta Euskadiko txapelketarako baliagarria izango da.

**OÑATI/**ESKUBALOIA

Domeka arratsaldean, Aloña Mendik eta Elgoibarrek jokatutako partida izan zen ikusgai Oñatiko Zubikoa kirol etxean, eta bi taldeak kopan aurrera egiteko asmoarekin kantxaratu ziren. Partida hasieratik, kanpotarrek aurre hartu zuten, baina oñatiarrak norgehiagoka berdintzeko gai izan ziren. Hala ere, azkeneko txanpan elgoibartarrek berriro ere estutu eta partidua irabazi egin zuten. Kanporaketako partiduak dira, hortaz, Oñatik ez du kopan jarraituko.

**ESKORIATZA/**MENDIA

Hurrengo domekan, ekainak 10, Eskoriatzako hildako mendizaleen omenez mendi ibilaldia izango da. Goizean goiz herritik irten eta Apotzaga, San Adrian, Jarindo, Benta Fria, Leixargarate, Mugarriluze, Degurixa, Kargaleku eta Kurtzebarritik itzulia egin eta gero, Eskoriatzara bueltatuko dira. Guztira 40 kilometroko ibilaldia izango da, eta izena ematea egunean bertan egin ahal izango da.

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea
Pentekoste jai zoriontsuak bergarar guztiei




TXANDA

# Txantxiku Dendarixen Elkartia

*Oñatikoa izan eta Oñatin bizi*

EUSKO JAURLARITZA · INDUSTRIA MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
GOBIERNO VASCO · DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA COMERCIO Y TURISMO

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

Kultura eta Aisialdia

Ekainaren 18etik 8ra

# Deba-goiena s@rean

Internetek arrotz izateari utzi dio. Bai enpresariek bai banakoek sarerako jauzia egin dute, eta orain, horri errentagarritasuna ateratzen hasi dira. Horren kulparen zati bat Eusko Jaurlaritzako "Konekta zaitez" kanpainak du. Baina baita ere, enpresa munduari dagokionez behintzat, gure bailaran sortu diren multimedia enpresek webguneak zabaltzeko bidea errazteak.

Enpresak dira webgune gehien dituztenak, eta ez dira bakarrik irudi korporatiboagatik. Hasieran irudi-inbertsio moduan ikusi bazuten ere, gaur egun urrutirago jarri dute helmuga eta urratsez urrats dihardute intraneta, produkzio hobekuntzarako erabilgarritasuna, enpresako efektibotasunean eragina... eta bestelako kontzeptuak lantzen. Helmuga aipatu dugu, baina batek daki non dagoen. Oraingoz, buru-belarri dihardute lanean, eta gure bailara nahiko aurreratuta dabil horretan.



Atari erakargarriak egiten dituzte, hala ere, lehen erabiltzen zituzten irudi handi eta mugimenduzko webgune estatikoei, orain, webgune dinamikoek kendu diete lekua. Horretan zeresana izango du orain, beste filosofia batekin jokatzeak. Lehen bat- bateko etekinak ateratzeko tresna moduan ikusten zuten internet, baina orain, komunikazio kanal moduan hartzen dute gehiago, kudeaketan, produkzioan eta, oro har, bestelako informazioa unean elkartrukatzeko irtenbide posible moduan. Horrek esan gura du, arlo horietan guztietan eragina izanda, komunikazioak bide erosoagoak dituela, eta denbora ere murrizten dela. Beraz, errentagarri izatea kontuan hartzen dute, baina beste parametro batzuetan.

Internet, negozioa ulertzeko beste modu bat bihurtu da enpresarientzat, eta jadanik ez dira ezezagunak e-business, e-commerce, intranet eta abarrak. IBAN ARANTZABAL /15

GOIO ARANA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

Ziritour | Kultura eta asialdi eskaintza zabala **Oñatiko gaztelekuan**

# Musika, zinema eta jokoak Oñatin

ZIRITOUR, GAZTE SOTO TALDEA ETA BESTE BATZUREN ELKARLANARI ESKER ANTOLATUTAKO ASTEBURUA

**Asteburu honetan, Oñatiko Gaztelekuan ez ohiko kultura eta aisialdi eskaintza izango da Ziritour izenpean bertara gerturatzen den edonorentzat. Zenbait gaztek elkarlana landu eta egitarau zabala antolatu dute bariku eta zapaturako.**



Ezkerretik eskubira eta goitik behera: Tenk!, LIF, Sharon Stonner eta DJ Mary.

IBAN IDIGORAS ETA JUXE

Kepa eta Lourdes, kultura animazioko Oñatiko bi ikasle, Gaztelekuan praktiketan dabiltza Ziritour izeneko kultura proiektua gauzatzen. Dagoeneko "Sexualitatea nerabezaroan" gaiari buruzko hitzaldia eta zenbait zine emanaldi antolatu dituzte bertan. Ikasturteari eta proiektuari amaiera emateko, berriz, kontzertua antolatzeko konpromisoa hartu zuten, eta berau prestatzeko orduan, Gaztelekuan bertan lanean aritzen diren Gazte Soto taldekoekin elkartzea erabaki zuten. Horrela, bi taldeen indarrak batuz, asteburu oparoa prestatu dute.

Barikuan bertan, arratsaldeko 19.30ean musika taldeen bideoklip emanaldia egingo da. Eta segidan, 20.30ean, zenbait film labur proiektatuko dituzte. Ondoren, gau partean, kontzertua emango dute Zway eta Neubat musika taldeek eta DJ Paulak. Zway Oreretako taldea da eta Neubat Gasteizkoa, baina biek egiten duten musika metal berriaren ildoan kokatu daiteke. DJ Paulak, berriz, Chill Outerako musika jartzen omen du eta gonbidatu berezia izango dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Zapatuan ere egongo da zer egin eta zer ikusi. Bazkalostean, 15.30ean mus txapelketa hasiko da, eta dagoeneko digestioa ondo egin orduko, 18.00etan, pingpong txapelketa jokatuko dute. Sariak parte hartzaileen araberakoak izango dira. Ondoren, 19.00etan, indarrak berreskuratzeko luntxa egongo da, eta jarraian, tam-tam ikastaroa ez dakitenentzat eta adituen erakusketa. Parte hartzaile eta antolatzaileak afaldu beharrean egongo dira, eta atsedenaldiaren ondoren, beste kontzertu bat ikusgai izango da Gaztelekuan. 22,30etik aurrera, Oñatiko Tenk! eta Sharon Stonner taldeak arituko dira. Tenk! metal berriaren ildoan gogor omen dabil, baina Sharon Stonner aldiz, ez ohiko taldea da, bertsioak jotzeko elkartzen dena, tartean herriko musikari ezagunak daudelarik. Horien ondoren, Hondarribiko Lif taldea arituko da. Euskal Herrian nahiko ezaguna den talde horrek Metak disketxearekin argitaratutako bere bigarren diskoa aurkeztuko du. Lan berri horretan, metaletik harantzago rockera hurbiltzen omen dabiltza gainera. Gaua ia amaiera ezinekoa bilakatuz eta asteburuari bukaera emateko, Oñatiko DJ Maryk techno-progresive doinuak jarriko ditu. Horrez gain, asteburuan zehar izen bera –Hibai Garai– duten bi lehengusu artistek zenbait graffiti landuko dituzte Gaztelekuan.

IKER BARANDIARAN

## Nire aukera

### Iraitz Agirre
### Idazle arrasatearra



Ikusi dudan azken filma, eta oso gustuko izan dudana, Montxo Armendarizen *Silencio Roto* izan da. Oso interesgarria iruditu zait makien historiaren berri ematen digulako, eta garai hartan, pertsona haiek zer egin zuten eta zer gertatu zitzaien azaltzen digulako. Filma ikusi nuenean erabat hunkituta sentitu nintzen. Edozelan ere, ez dut makien gorabeheren gaineko filmen faltarik sumatzen; izan ere, ez da komeni gaia behin eta berriro ateratzerik.

### 'SILENCIO ROTO'
### Montxo Armendariz




LEIRE KORTABARRIA

Oñatiko Institutua

Heziketa zikloak

ERDI MAILAKOAK

- Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea
- Fabrikazio mekanikoa

GOI MAILAKOA

- Gizarte eta kultur animazioa



Aurrematrikulazioa
Ekainaren 1etik-12ra

Informazio gehiago: Zuazola ikastetxea - Larraña ikastetxea
Aita madina z/g - San Lorentzo z/g
943 78 12 68 - 943 78 21 50

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

# Ekaina: 1-8

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

### ELORRIO
> **"Cierra bien la puerta"** antzezlana datorren egubakoitzean, ekainak 8, Arriola aretoan, 22:30ean. Beatriz Carvajal, Elisenda Ribas eta Ainhoa Amestoyrekin.

### ARRASATE
> **"Gu gu txupete"** antzezlana egubakoitzean, ekainak 1, gauerdian Iamai kafetegian.

## Musika

### ARETXABALETA
> **Biok eta Storbals** taldeak zapatuan, ekainak 2, Gaztetxean, 22:30ean.

### ARRASATE
> **Versus** taldea zapatuan, ekainak 2, Olarte kaleko Jaizale tabernan, 19:00etan.

> **Flauta eta klarinete** kontzertua eguaztenean, ekainak 6, Arrasate Musikaleko aretoan, 18:15ean.

### BERGARA
> **7 notas 7 colores** eta **DJ Vadim** egubakoitzean, ekainak 1, Jam aretoan, 22:00etan.

> **Iparhaizeak dance party** zapatuan, ekainak 2, Jam aretoan, gauerdian.

### ESKORIATZA
> **Arima beltza** egubakoitzean, ekainak 1, Aldatz tabernan, 22:30ean. Axtroki euskara elkarteak antolatuta.

### OÑATI
> **Zway, Neubat** eta **DJ Paula** egubakoitzean, ekainak 1, Gaztelekuan, 22:30ean.

> **Sharon Stoner, Tenk!, Lif** eta **DJ Mary** zapatuan, hilak 2, Gaztelekuan, 22:30ean.

> **Rock jaialdia** ekainaren 8an Gaztelekuan, 20:00etatik goizaldera arte. Joseina Etxeberriaren hitzaldia eta euskal rockaren inguruko argazki erakusketa izango dira eta Fundiziyue eta beste bi talderen kontzertua.

### ELORRIO
> **Mikel Telleria** egubakoitzean, ekainak 1, Ateneoan, 23:00etan. Barriketanek antolatuta.

### ELGOIBAR
> **Mikel Urdangarin** egubakoitzean, ekainak 1, Herriko Antzokian, 22:30ean.

## Bertsoak

### ELORRIO
> **Bertso jaialdia:** Sebastian Lizaso, Jokin Sorozabal, Oihane Perea, Sustrai Kolina, Igor Elortza, Xabier Silveira, Xabier Amuriza, Xabier Arriaga "Txiplas", Jon Maia, Ireneo Ajuria eta Jon Maia. Zapatuan, ekainak 2, Arriola aretoan, 19:00etan. Senideak elkarteak antolatuta.

## Erakusketak

### BERGARA
> **Nacho De Vicente** aramaioarraren margo erakusketa Nahikari tabernan.

## Lehiaketak

### ARRASATE
> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa,** Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezetakoa da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan jaso daitezke, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

### BEASAIN
> **IV. Igartza literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat.** Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke. Bekak 1.000.000 pezetako dirulaguntza izango du. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago Beasaingo udaleko euskara zerbitzuan, 943 02 80 50 zenbakian.

### GASTEIZ
> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

### PORTUGALETE
> **Komiki lehiaketa.** Koloreko edo zuribeltzeko lanak aurkeztu ahal izango dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Komikia eta komikibanda kategoriak bereiztuko dituzte. Kategoria bakoitzean onenentzat sariak izango dira. Argibideak: 94 472 92 20.

> **Mariano Ciriquiain Gaiztarro ikerketa beka.** Portugaleteko historiaren edozein alderdi landu beharko da: biografia, ondare historiko-artistikoa, eta abar. Banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira proiektuak, irailaren 13ra arte. Argibide gehiago 94 472 92 20 zenbakian.

### ZESTOA
> **Zestoa herria ikerketa beka.** Bekaren helburua: Zestoako ahozko tradizioa eta kultura ondareari buruzko ikerlana egitea. Ikerketa lana euskaraz egin beharrekoa da eta lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da. Bekaren zenbateko milioi bat pezetakoa izango da. Argibideak Zestoako Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso daitezke, 943 14 70 10 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

### ARRASATE
> **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### ARETXABALETA
> **Luzaketa laguntze ikastaroa** maiatzaren 29tik ekainaren 28ra arte, martitzen eta eguenetan, 20:30ean. Argibideak eta izena ematea: 616 96 57 95.

> **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### ESKORIATZA
> **Energia berriztagarrien ikastaro** teoriko-praktikoa datorren astebukaeran, ekainaren 9an eta 10ean. Izena ematea eta argibideak 943 71 54 53 (goizez) eta 636 94 49 88 (arratsaldez) telefonoetan.

### DEBAGOIENA
> **Alpinismo ikastaroa arkaitzean**, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuta, ekainaren 9an, 10ean, 16an eta 17an Etxaurin. Argibideak 943 46 14 40 telefono zenbakian jaso daitezke.

### DEBA
> **Debako Arte Eskola.** Udako ikastaroak uztailaren 2tik aurrera:

Sex Museum



MUSIKA

### KONTZERTUAK BERGARAKO JAIETAN

Bergarako Pazkoak direla eta, hainbat kontzertu izango dira Bideberrin. Egubakoitzean, ekainak 1, UK Subs britainiarrak, La broma de Satan, Fly Shit bergararrak eta Sin City Six taldeek joko dute. Zapatuan, berriz, Sex Museum (argazkian), Black Halos, Cannonballs eta Bergarako Cool Panic taldearen txanda izango da eta astelehenean, azkenik, Ñaco Goñi, Audience bizkaitarrak eta X-AT eta Requiem talde bergararrak izango dira taula gainean. Kontzertu guztiak gaueko 11etan hasiko dira. Bestalde, Gaztetxean ere kontzertuak izango dira egunero, gauez. Gaur, egubakoitza, Iskanbila eta Zein? taldeen kontzertua izango da, 23:00etan.

Lanbide Heziketa
Ingurugiroa
• Ingurugiro kimika
• Ingurugiro osasuna
Eraikuntza eta obra zibilak
• Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa
Osasungintza
• Erizaintzako zainketa laguntzaileak
• Osasun-dokumentazioa
Gorputz eta kirol ekintzak
• Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea
Arizmendi ikastola
LANBIDE HEZIKETA
Arizmendi, Koop. E.
Tel: 943 77 20 25
Faxa: 943 77 00 73
arizmendi@sarenet.es
http://www.arizmendikoop.com
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

# Bergarako jaiak

## Egubakoitza 1

- **20:00** Jaiak hasiko dira etxafuego jaurtiketarekin eta BITORIANATXOren JAITSIERArekin.
- **20:00** Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleak alaituz.
- **20:00** Matxiategin, BARRAKAK irekitzea.
- **20:00** Bideberriko TXOSNAK irekitzea.
- **20:30 - 21:30** DANTZALDIA Joselu anaiak taldearekin, San Martin plazan.
- **22:30** Jesus Gurudiren El Caserio zarzuelaren antzezpena, Jose Luis Frantzesenak moldatua eta zuzendua, Udal Pilotalekuan.
  Parte hartzaileak:
  Azpeitiko Julian Barrenetxea abesbatza
  Aretxabaletako Aretxabaleta abesbatza
  Azpeitiko Itsasi dantzari taldea
  Azpeitiko Musika Bandako kide batzuk
- **23:00** DANTZALDIAren jarraipena. Joselu anaiak taldea, San Martin plazan.
- **24:00** ROCK KONTZERTUA Bideberrin: U.K. Subs, Sin City Six, la broma de Satan eta Fly Shit.

## Zapatua 2

- **09:00** XXI. Haur eta Gazteen Plastika sariketa. Beart taldeak antolatuta. Bearten egoitzan (Bolu kalea, 49).
- **10:00** DIANA, auzoak esnatu ondoren, San Martin plazan elkartuko dira
  - Oxirondotik, Kobok dultzaineroak.
  - Labegaraietatik, Josu eta Jokin soinujoleak.
  - Bolutik, Udal Txistulari Banda.
  Gero, MIZPIRUALDERA BISITA egingo dute dultzainero eta txistulariek.
- **11:30** Elkarteen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute elkarteek San Martin plazan, trikitilariek alaituta.
- **11:30** XXI. Haur eta Gazteen Plastika sariketako sari banaketa. Beart artisten elkartearen egoitzan (Bolu kalea, 49).
- **16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan.
  - Urionaguena-Balerdi/
  Beloki II.a-Nalda III.a
  - Unanue-Armendariz/Olaizola I.a-Errasti
  - Salaberria-Galartza IV.a/Ariznabarreta-Albizuri
- **17:00** Zirko Ttipiaren Munduko malabaristenak emanaldia, San Martin plazan.
- **18:00** ERREKORTADOREEN Euskadiko II. TXAPELKETA.
  Txapelketa horretan Nafarroako, Tolosako, Donostiako eta Bergarako bikoteek parte hartuko dute.
- **18:30** ERRALDOIEN ALARDEA, Urretxuko eta Arrasateko erraldoien konpartsek eta Bergarako erraldoiek, Udal Txistulari Bandak eta Kobok, Bergarako txistulari taldeak, parte hartuko dute. Ibilbidea: kultura etxea, Barrenkalea, Gaspar jatetxea, Irizar pasealekua, Fraiskozuri plaza, Irala kalea, Barrenkalea, San Martin plaza, Barrenkalea eta kultura etxea.
- **23:00** KONTZERTUA San Martin plazan, Sen, Eraso eta Lau Behi taldeekin.
- **23:00** ROCK KONTZERTUA, Bideberrin, Black Halos, Sex Museum, Cannonballs eta Cool Panic taldeekin.
- **23:00** DANTZALDIA Espoloian, Tarantella orkestrarekin.

## Domeka 3

- **08:15** Udal Txistulari Bandarekin ALBORADA.
- **08:30** Mutrikuko Udal Musika Bandaren KALEJIRA, San Martin plazatik.
- **09:00** Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon M. Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK.
- **09:00** TXIRRINDULARI LASTERKETA: 23 urtez azpikoentzat LXVI. Pentekoste Saria.
- **11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, Udal korporazioa partaide dela, eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- **11:30** Hamabost urtez azpiko bikote gazteendako XXIV. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan. Lehenengo 15 bikoteak sailkatuko dira.
- **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.
  Egitaraua:
  *Cantame un pasodoble. Pasodoblea*
  C. Cano
  *Fantasy Tales.*
  P. Swerts
  Ballet Parisien. Suitea, Obertura, Valse, *Galop, Finale*
  J. Offenbach
  *Las golondrinas. Pantomima*
  J.M. Usandizaga
  *Glenn Miller Medley. Big band*
  G. Miller
  Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque
- **14:30** PILOTA PARTIDUAK Udal Pilotalekuan.
- **17:30** San Martin plazatik zezen-plazaraino KALEJIRA Mutrikuko Musika Banda eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. Parte hartzaileak: mandakoak, agoaziltxoak, agintariak eta herriko zaleen koadrilak. Geldialdia egingo dute Alzelai-enean.
- **17:30** Hamabost urtez azpiko bikoteendako XXIII. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- **18:00** ZEZEN FESTA. Salamancako Espioja ganadutegia. Zezen Zaleak taldearen laguntzaz.
  Nobilleroak:
  Jose Cascon eta Curro Reyes
  Bikaina:
  Ivan Fandiño 'El niño de la Antigua'
  Gero, Elgoibarko dultzaineroek herriko kaleak alaituko dituzte.
- **19:30** Dar-Dar produkzioak antzeztutako Alizia bitxikerien lurraldean, San Martin plazan.
- **23:00** Paco Formoso eta Passarela orkestrarekin, CAMP DANTZALDIA, San Martin plazan.

## Astelehena 4

- **08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezenplazaraino.
- **09:00** Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.
- **10:30** Ollagorra elkarteak antolatutako PLATER TIROKETA, Gorlako Hirubide zelaian.
- **11:30 - 14:00** Ipintza IIko patioan haurrentzako JOLAS PARKEA: kart-ak, gaztelu puzgarriak eta abar. Barraketan haurrentzat prezio bereziak izango dira.
- **11:30** Udal Musika Bandaren KALEJIRA.
- **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.
  Egitaraua:
  *Aizepe. Martxa*
  A. Gz. Chirlaque
  *Victory*
  J. de Hann
  *La Gran Via.* Zarzuelatik hautatua
  Chueca-Valverde
  *The last of the mohicans.* Soinu banda
  Jones-Edelman
  *Soul Bossanova*
  Q. Jones
  *Bergarako ereserkia*
  A. Gz. Chirlaque
  Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque
- **14:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan:
  - Retegi IV.a-Nalda III.a/ Saralegi-Albizuri
  - Tirapu-Patxi Ruiz/Berasaluze VIII.a-Armendariz
  - Arretxe-Otxandorena/Agirre-Pascual
- **17:00 - 20:00** JOLAS PARKEAren jarraipena, haurrentzat. Ipintza II institutuko patioan.
- **18:00** ZEZEN IKUSKIZUNA, gazteentzat, Gorritiren ganaduekin, Los Incansables TXARANGAK animatuta, zezen plazan.
  Ondoren Los Incansables txarangaren KALEJIRA.
- **20:00** BONBA JAPONIARRAK haurrentzat, San Martin plazan, eta ondoren, buruhandi eta erraldoien kalejira.
- **23:00** DANTZALDIA, Alaitz eta Maider taldearekin, San Martin plazan.
- **23:00** ROCK KONTZERTUA, Bideberrin, Ñaco Goñi, Audience, Requiem eta X-at taldeekin.
- **23:00** Nueva Alaska orkestrarekin DANTZALDIA, Espoloian.

## Martitzena 5

- **08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.
- **09:00** Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta zezen plaza Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.
- **11:00 - 20:00** Pentekoste jaietako kartel lehiaketara aurkeztu diren KARTELEN ERAKUSKETA, Udaletxeko arkupeetan.
- **11:00** Egunean zehar, Xafre eta Zaharra, Josu eta Jokin trikitilarieketa Los Incansables txarangak herriko kaleak alaituko dituzte.
- **11:30-14:00** HERRI TRENAren ibilaldia. Fraiskozuri plazatik irtenda
- **12:30** IPARRALDEKO HERRI KIROLEN IKUSKIZUNA, San Martin plazan.
- **13:00** Kalez kale trikitilariekin ibili ondoren, HERRI BAZKARIA San Martin plazan, herriko koadrilek, Xamatz danta taldeak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Jardun elkarteak antolatuta.
- **16:30-19:30** Bazkalondoan jokoak eta Iraunkorra Txarangaren emanaldia.
- **16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udal Pilotalekuan:
  - Alustiza-Zearra/Etxaniz-Zezeaga
  - Unanue-Errasti/Goñi II.a-Goñi III.a
  - Minguez-Pinedo/Muruamendiaraz-Arroyo II.a
- **17:00-21:00** HERRI TRENAren bira. Fraiskozuri plazatik irtenda.
- **18:00** ENBOLATUAK, herriko koadrilentzat zezen plazan, Los Incansables txarangak alaituta.
  Ondoren, Los Incansables txarangarekin KALEJIRA.
  Egun osoan zehar kaleak alaitzen:
  - Xafre eta Zaharra eta Iosu eta Iokin TRIKITILARI bikoteak.
  - Los Incansables TXARANGA.
- **20:00 -21:00** eta 22:30etik aurrera DANTZALDIA Egan taldearekin, San Martin plazan.
- **24:00** San Martin plazan elkartzea, eta BITORIANATXOren igoera.



**Aurtengo jaiek lau gune nagusi izango dituzte: Bideberrin, txosnak dauden lekuan, 12 kontzertu egingo dira; gaztetxean ere, beste horrenbeste; Espoloian eta S. Martin plazan, antzinako musika estiloko dantzaldiak eta Xabier Munibe plazan, antzerkia.**
**Erraldoien konpartsak, bestalde, izango du berritasunik. Izan ere, aurten bi erraldoi estreinatuko dira, XIX. Mendeko bi euskaldun aberats irudikatzen dutenak.**

Jaiotakoen argazkiak eta informazioa: **Miren Ibabe**



**Ane Gay Sanz** (Azkunaga) eskoriatzarra ahizpa **Maialen** eta **Begoña** amarekin, mondragoetarra azken hau. Ane maiatzaren 22an jaio zen, eta 3,200 kilo pisatu zuen. **Juanma** da aita, mondragoetarra.



**Martxel Aranzadi Olazabal** mondragoetarra maiatzaren 22an jaio zen, eta 3,500 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Miren** eta **Joxemiel** dira, mondragoetarra ama, eta aita, berriz, lasartearra.



**Julen Gutierrez Gonzalez** mondragoetarra amama **Eloisa**ren besoetan. Maiatzaren 24an jaio zen Julen, eta 3,290 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Maria Angeles** eta **Secun** dira, mondragoetarrak biak ere.



**Ander Otero Aranburu** lehengusina **Maria** eta **Joseba** aitarekin, mondragoetarrak hirurak. Ander maiatzaren 24an jaio zen, eta 3,600 kilo pisatu zuen. **Goizane** da ama, bera ere mondragoetarra.



**Mikel Galvez Calero Yolanda** amarekin eta **Josu** anaiarekin, eskoriatzarrak hirurak. Mikel maiatzaren 25ean jaio zen, eta 3,070 kilo pisatu zuen. **Rafa** da aita, eskoriatzarra bera ere.



**Noha Garagorri Jebali** bergararra eta **Neila** ama, Tunisiakoa. Noha maiatzaren 25ean jaio zen, eta 2,700 kilo pisatu zuen. **Jon** da aita, bergararra.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.



Goienkaria
Astero 20.000 etxetan.
Eskelen prezioa: 10.000 pezeta.

## JAIOTAKOAK

**Igor Gonzalez Ferreiro**
Bergaran, maiatzaren 17an.

**Miren Gomez Ugarte**
Oñatin, maiatzaren 18an.

**Ainara Escribano Biteri**
Antzuola, maiatzaren 18an.

**Iker Romero Boyero**
Aretxabaletan, maiatzaren 18an.

**Endika Gordillo Murua**
Eskoriatzan, maiatzaren 19an.

**Iris Pagaldai Torre**
Aramaion, maiatzaren 21ean.

**Ager Kalboetxeaga Zabaleta**
Bergaran, maiatzaren 22an.

**Eider Najera Larrañaga**
Bergaran, maiatzaren 23an.

**Ane Arrizabalaga Zubia**
Aramaion, maiatzaren 24an.

**Julen Gutierrez Gonzalez**
Arrasaten, maiatzaren 24an.

## HILDAKOAK

**Andrea Darribes Otero**
Oñatin, maiatzaren 23an, 84 urte zituela.

**Jesus Bolinaga Ortubai**
Arrasaten, maiatzaren 24an, 79 urte zituela.

**Felisa Elortza Guridi**
Bergaran, maiatzaren 24an, 72 urte zituela.

**Jose Mari Aginagalde Akizu**
Aretxabaletan, maiatzaren 26an, 85 urte zituela.

**Jose Azkarraga Fuldain**
Elgetan, maiatzaren 27an, 80 urte zituela.

**Rafaela Moto Custodio**
Arrasaten, maiatzaren 27an, 87 urte zituela.

**Juan Valor Valor**
Arrasaten, maiatzaren 27an, 77 urte zituela.

**Ursula Zelaia Azkoitia**
Oñatin, maiatzaren 28an, 83 urte zituela.

**Felix Arantzabal Laskurain**
Bergaran, maiatzaren 28an, 82 urte zituela.

**Nicolas Varas-Ikatzeta**
Arrasaten, maiatzaren 29an, 81 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Igone Arana Oregi** eta **Jose Angel Arriaran Intza,** Elgetan, maiatzaren 19an.

**Oscar Gil Ledesma** eta **Maria Elena Lezama Estenaga,** Antzuolan, maiatzaren 19an.

**Jose Luis Isazelaia Igartua** eta **Marta Arribas Alvarez,** Arrasaten, maiatzaren 19an.

**Adolfo Tena Davila** eta **Naiara Zabarte Gil,** Arrasaten, maiatzaren 23an.

**Jesus Ugartetxe Pascual** eta **Silvia Garcia Etxebarria,** Gatzagan, maiatzaren 26an.



**Ane Arrizabalaga Elortza** eta **Oskar** aita, aramaioarrak biak. Ane maiatzaren 24an jaio zen, eta 3,750 kilo pisatu zuen. **Laurane** da ama, mondragoetarra.

## ESKER ONA

### Jose Mari Lazpiur Goirizelaia

Gasteizen hil zen 2001eko maiatzaren 19an, 42 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

# Hitz gezidunak

Luma




# Bila-bila 7







# Umore giroan

Jon Irizar

**AITTA ETA HERRENA**

Umiak ikastolan jai zeukela-eta, juan da aitta dozena bat seme-alabakin Donostiara eskursiñuan, trena hartuta. Donostian, Igeldorako autobusa hartzera doiazela, hasi die umiak autobusian sartzen eta hainbeste zirenez, autobusa bete da. Aitta eta beste herren bat kanpuan geratu die, autobusian tokirik ez zeguala eta.

Igeldora oiñez juatia erabaki dabe, eta hor doiaz Kontxako paseotik takarradan. Herrenak egurrezko hanka zeukan eta baldosetan arrastaka egiten zebanian tarrrrra, tarrrrra, tarrrrra... zaratia ateratzen zeban. Halako baten, aittak herrenari:

- Hor, egurraren puntan gomatxo bat ipiñiko bazeuke, ez ziñuke holako zaratarik aterako.

Eta herrenak:

- Eta zuk hor puntan gomatxo bat ipiñi izan baziñu, oin danak autobusian joango giñake.

**OILLARRAK ETA OILLUAK**

Ezetz jakin oillarrak zergatik ez dauken eskurik. Oilluak titirik ez daukelako!

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



**Zenbat ziren bailaran urte hasieran 100 urte baino gehiago zituzten pertsonak?**

Gizakion bizitza-esperantza urtez urte goraka omen doa, eta bat baino gehiago dira gure inguruan 100 urte baino gehiagokoak. Zenbat ote ziren 100 urte baino gehiago zituzten debagoiendarrak 2001. urtearen hasieran?

- Hiru
- Zortzi
- Sei

**Erantzun zuzena:** 8 pertsona, 7 andre eta gizonezko bat.

## Soluzioak






# Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Energia gordetzeak eta zure ekintzak mugatzeak, zure baliabideak hobetzen lagunduko dizute.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Bilatu lasaitasuna eman diezazukeen edozer, eta hausnartu lasai edozein erabaki hartu aurretik.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Tentsioak zalantzak eragingo dizkizu zure asmoetan. Aztertu eta baztertu balizko hankasartzeak. Adi egon.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez da erabakiak hartzeko unea, baina hartu aurrea bidean agertuko zaizkizun trabei eta bilatu saihesbideak.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zure estimuluak egokitzeak, besteak zeureganatzeko zortea eta indarra emango dizkizu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Harremanen arloan nahi dituzun aldaketak eragiteko, hausnartu eta antolatu eman beharreko pausoak.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Bizitza honetan guztiaren segurtasuna erlatiboa dela ikusiko duzu, modurik onenean saldu badizute ere.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Gizarteko arazoen aurrean kontzientziatu beharra daukazu. Horrek guztiak, epe luzean aseko zaituen bidera eraman zaitzake.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Onargarriagoa izan eta ausartu zaitez aukera berriak modu zuhurrean jakinarazten.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Zure inguruan, zuretzat ezagunak izango diren egoerak agertuko zaizkizu, hartu ez zenituen erabakien ondorio. Konpon itzazu arazook behingoz eta, horrela, zeure buruarenganako konfiantza handituko da pixkanaka.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Ahalegin handi bat dela medio, zure ideiak eta asmoak koherentziaz eta zehaztasunez egituratuko dituzu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Probabilitateak aztertzea bizitzako arlo guztietan egin beharreko kontua da. Ez zaitez izan zalantzen beldur eta azaldu zure ideiak gizartearen jokaera berriei aurrea hartuz..

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 1a

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com**

## Telebegi

### *Fikzioa*

Euskaraz egindako zinemagintzaren uzta patetikoa izan da azken urteetan. Ez da luzemetrai bakar bat egin. Laburmetrai gutxi batzuk, hori izan da aportazio guztia. Zergatik gertatzen da hori? Zinemagintza oso garestia delako, eta dirua jartzen duenak etekinak ikusi nahi dituelako bueltan. Hori horrela izanda, azkenean gazteleraren aldeko apustua egiten da beti. Eta susmo txarra daukat, aurrerantzean ere zinemagintzan hutsaren pare izaten jarraituko dugula.

Testuinguru horretan, ETBko telesailak dira euskaraz egindako fikzioa ikusteko daukagun aukera bakarra. Telesail hoien kalidadea aparte utzita (bakoitzak erabaki dezala gustatzen zaizkion ala ez), argi dago gutxienez hainbat profesional trebatzen ari direla: kamarak, errealizadoreak, aktoreak, gidoilariak...

Seguru gure bailadan hainbat gazte dagoela arlo hoietako batean lehen urratsak emateko irrikitan. Baina lan zaila eukiko dute, ez daukatelako non hasi, eta nola hasi. Ez dago azpiegitura minimorik ere.

Hortxe doa, beraz, nire proposamena. Posible izango litzateke GOITBn telesail bat egitea? Programazioa aberasteaz gain, inguruko gazte tunanteen akuilu ezinhobea izango litzateke.

Gurea ez da makro-telebista, baina apustua modu apalean planteatu daiteke. Gaur egun kamara digitalak oso merkeak dira, eta kalitate itxurosoa ematen dute. Traste hoietako hiru erosita, nahikoa. Hortik aurrera, imajinazioa nagusi!

Euskaraz egindako fikzioak asko estimatuko luke halako aukera xume bat, duda barik.


Jon Andueza

## Bergarako jaiak GOITBn

### Berriak Bergaratik

Astelehenean, aukera paregabea izango dute Bergarako herritarrek bailarako telebista gertutik bizi izateko; izan ere, astelehen arratsaldean, unitate ibiltaria San Martin plazara eramango dugu, handik egingo dugu-eta albistegia. Debagoienak egunean eman dituen albisteak eskainiko ditugu, eta horren ondoren, Bergarako jaiei tarte berezia eskainiko diegu. Jaiek astebururuan eta astelehenean eman dutena laburbilduko dugu eta gonbidatu bereziak elkarrizketatuko ditugu. Grabaketa arratsaldeko seietan hasiko dugu. Etor zaitez GOITB gertutik ikustera!

**Astelehena, 20:00etan eta 20:30ean**

### 'Xeleberri' jaietan

Iratxe eta bere taldea Bergarako jaietan ibiliko dira herriko giro xelebrea jasotzen. Kepa Errasti, Mikel Aranburu eta Oihan Vega erreportariek buru-belarri jardungo dute bergararrak gure objektibora hurbiltzen, betiere, galdera xelebreren bat ahotan. Saio berezi hori martitzenean eskainiko dizue GOITBk, gaueko bederatzietatik aurrera. Gogoratu, gainera, 943 712393 telefono zenbakira deituta, hil bukaeran Gaztainuzketako mendi etxeetan asteburu baterako zozketan esku hartuko duzula. Hortaz, galdu ezineko hitzordua duzue GOITBn!

**Martitzena, 21:05ean**

### XXIV. dantza txapelketa

Domekan, hamabost urtez azpiko bikoteendako XXIV. Euskadiko dantza txapelketaren kanporaketa jokatuko da Bergaran, eta GOITB hantxe izango da. Hogeita zazpi bikotek esku hartuko dute, tartean, iazko txapeldun Josune Fernandez eta Alex Torre bergararrak izango dira. Goizeko saioaren ostean, hamabost bikote sailkatuko dira azken txanparako. GOITBk hamabost bikote horien jarduna eskainiko dizue. Esatari lanetan Maite Aristegi eta Jaione Arana izango ditugu, biak ere dantzan adituak. Gogoratu saioa eguaztenean eskainiko dizuegula, gaueko bederatzietatik aurrera.

**Eguena, 21:05ean**

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Ekaina 1-7

| EGUBAKOITZA 1 | ZAPATUA 2 | DOMEKA 3 | ASTELEHENA 4 | MARTITZENA 5 | EGUAZTENA 6 | EGUENA 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete**<br>21:30 **Soinuz blai** | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Ekilan, Mahaiaren bueltan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Ekilan, Mahaiaren bueltan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak Bergaratik**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak Bergaratik**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri berezia** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Xeleberri berezia**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **XXIV. Euskadiko Dantza Txapelketa** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **XXIV. Euskadiko Dantza Txapelketa**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera Doan**<br>21:05 **Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK

Angiozar auzoak buru-belarri dihardu Eskola Txikien Festa antolatzen. Ekainaren 10ean ospatuko dute Eskola Txikien Festa, *Eskola Txikiak Bizirik* lelopean. Eguneko *Sarrera Doan* saioan tarte berezia eskainiko diogu festa handi horri eta antolatzaileekin berba egiteko aukera izango dugu, Angiozarrera hurbiltzeko gonbita egiteko. Gogora ezazue *Sarrera Doan* saioa sariz beteta datorrela astero.

### AURPEGI BERRI BILA

GOITB datorren ikasturterako programazioa prestatzen ari da. Hori dela eta, aurpegi berriak aurkitu gura ditugu hainbat saiotarako. Hortaz, bailarako telebistan esku hartu gura baduzu, eta telebista barrutik bizi gura baduzu, dei ezazu 943 71 23 93 telefonora edo bidal ezazu mezua goitb@goiena.com helbide elektronikora. Ateak zabalik izango dituzu GOITBn, animatu!

## Kamera aurrean



*"Hitzarmenak oso interesgarriak dira udalarendako, herri ekimena eta udala lotzen direlako"*

**Larraitz Trojaola** | Arrasateko zinegotzia
"BERRIAK" (2001-05-30)



*"Energia oso merke daukagu eta hala erabiltzen dugu, muga barik"*

**Ander Laresgoiti** | Ikerlan-energiako zuzendaria
"MAHAIAREN BUELTAN" (2001-05-30)


EROSKi
Erosten Jakin
Irten zaitez
eguzkitara

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko ekainaren 1a

## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Igor Arenaza/Futbolaria

**Uer moduz lesioa?**
Bueno, nahiko lesio larria izan dut, baina ebakuntza oso ondo irten da. Hasiera batean min handia izan dut. Orain, ordea, belauna oso ondo erantzuten ari da. Sei-zazpi hilabete barru jokatzen izatea espero dut, baina ez dut presaz hartu gura.

**Eta taldea?**
Oso ondo. Lan handia egiten duen lagun taldea gara eta gure helburua da, urterik urte, bigarren mailari eustea.

**Futbolean bota ortopedikoekin ikasi zenuen. Takodunak gurago?**
Bai, duda barik.

**Ametzako baserrian hartu zenuen lastertasuna, untxiak harrapatzen?**
Abiada, abilezia eta indarra ere bai, batez ere sega-makina jasotzen.

**Zer da futbola zuretako?**
Lanbidea eta zaletasuna, biak aldi berean. Ilusio handia sortzen dit lagun taldean entrenatzera joan eta lan fisikoa egiteak, domekan beste talde baten aurrean fisikoki eta taktikoki erantzuteko eta jende multzo bati poza emateko. Niretako une honetan gauzarik ederrena da futbolean jokatzea. Futbolean jokatzeak poza emango ez balit, lanbidez aldatuko nuke.

**Txikitako zaletasuna bizibide duzu, baina beste zaletasunik ere izango duzu.**
Jende arruntak dituen zaletasunak ditut: lagunekin elkartu, noizean behin elkarteren baten afaria egin, zinemara joan, irakurri, mendian ibili...

**Baloiari baino, zeini emango zenioke ostikada ederra?**
Une honetan ez dut arrazoirik inori ostikadarik emateko.

**Gaztelaniaz Bilbao Athletic taldean ikasi zenuen.**
Bai, Bilbao Athleticen eta Eibarren egin nituen lehenengo urteetan. Eibarren baserritarra nintzela esaten zidaten gaztelaniaz ez nekielako, eta Bilbora ea nola joan behar nuen galdetzen zidaten.

**Futbolean jokatzea abantaila da ligatzeko?**
Ezaguna izanez gero, bai. Lehenengo mailakoak gu baino askoz ezagunagoak dira. Dena dela, hori ere norberaren araberakoa da.

**Futbol jokalariok parrandazale ospea duzue.**
Parranda gutxi egiten dugu, baina gutxi horiek gustura hartzen ditugu.

**Reala, Osasuna, Alaves ala Athletic?**
Ni Athleticen ibili nintzen, eta oso gustuko dut. Bestalde, gaur egun Realean lagun asko ditut. Osasuna eta Alaves, berriz, atzerago ditut.

**Figoren kontu korrontea bazenu...**
Ez dakit. Zaila da hori jakitea. Nire izaerari eusten saiatuko nintzateke, luxutxo batzuk gehiagorekin.

**Etorkizunean Euskaltzaindiko euskal filologo?**
Lizentziatura ateratzen ari naiz, baina nagi samarra ere banaiz.



**“Lan handia egiten duen lagun taldea gara eta gure helburua da, urterik urte, bigarren mailari eustea”**

**“Futbolean jokatzeak poza emango ez balit, lanbidez aldatuko nuke”**

**“Sei-zazpi hilabete barru jokatzen izatea espero dut, ez dut presaz hartu gura”**

► *Aretxabaletarra / 27 urte / Eibar futbol taldekoa*

## AIPAGARRI



**MARI KARMEN GALLASTEGI**
**Bergara /Irakaslea**

2002an hasita, sei hilabetez irakasle bisitari izango da Oxford-eko Unibertsitatean, Eusko Ikaskuntzak bidalita. Han, Euskal Herriaren Integrazioa Europan izango du ikergai. Mari Karmen Gallastegi doktorea da Ekonomia Zientzietan eta Euskal Herriko Unibertsitatean irakasten du, Sarrikoko Fakultatean.



**MIKEL IBARZABAL**
**Bergara / Irudigilea**

Miramongo Parkeak bederatzi planeta eta meteorito bat egitea enkargatu dizkio artista bergarararri, Kutxaespazioan eguzki sistema irudikatzeko. Poliestarra erabiliko du horretarako. Bergarako Udalaren enkarguz, bestalde, bi erraldoi egin ditu jaietarako, XIX. mendeko bi kaletar aberats. Mikelek Urretxun du lantegia.



# Miguel ALTUNA institutua

**2001/2002 ikasturterako**
**Hezkuntza-eskaintza**
**KALITATEKO ESKAINTZA**

**Aurrematrikula epea:** ekainaren 1etik 12ra
Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara

Miguel Altuna Institutua. Ibargarai, 1.
Tel. 943 76 24 91 eta 943 76 38 40.
Faxa: 943 76 38 41.
Posta elektronikoa: imaltuna@sarenet.es eta 013020aa@hezkuntza.net
www.imaltuna.com

■ **GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**
- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxugintza
- Idazkaritza (bi hizkuntza: ingelesa eta frantsesa)

■ **ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK**
- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa

AENOR ER IQNet

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara edo etorri maiatzaren 30ean 18:00etan: **Ateak irekita izango dituzu!**